



Bizi dezagun, bada

Durango Azokak gaur ireki ditu atak 'Bizitzekoa DA!' leloagaz. Durango kulturaren plaza bihurtuko da datozen bost egunetan. Aurtengo Argizaiola saria euskararen eta euskal kulturaren alde inurri lan etengabea egin duten langileei emango diete.



AbOIZ

- Erregetako menua •
- Arroitate menua, astelehenetik ostiralera •
- Adostutako menuak enpresentzat •
- Karta •

San Migel auzoa, 2 GARAI • Tel.: 946 228 240 • www.aboiz.es

ARETO NAGUSIKO EGITARAUA

ABENDUAK 2, BARIKUA

10:30 IKASLE EGUNA. Nola egin liburu baten iruzkina. Yolanda Arrietaren eskutik bi tailer ikasleentzat. Euskal Editoreen Elkarte

13:30 Jesus Kerexeta Azkoaga (1922-2007). Bizitzaren abestiak. 'Vida y canción'. Blanca Gómez Kerexeta, Jose Luis Gomez Kerexeta, Maite Blanco Gomez.

15:00 Ikasle euskaldun eleaniztasunak. Gidaren aurkezpena. Sortzen Elkarte

16:00 Zintzo, Zuzen, Jator: euskalduntasunaren transmisioa. Urtzi Ithiza (ENA)

16:30 Opio errebeldea: futbola, iraultza eta gizarte aldaketa. Rayco Sanchez (egilea), Dacil Sanchez eta Beñat Zarrabeitia.

17:00 Peru Apreta, mistikoa. Joxean Sagastizabal (egilea), Jose Angel Irigaray (Pamiela)

17:30 14eko gerla 14 lekuko. Maiatz argitaletxea

19:00 Sarrera ekitaldia. Gerediaga Elkarte

ABENDUAK 3, LARUNBATA

10:30 Ika Mizka. Mahai-ingurua, Gaztezulo. Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak, unibertsitateetako ordezkariak.

11:30 Ideia eta balioen bestelako historia laburra. Juan Inazio Hartsuaga (egilea) Jose Angel Irigaray (Pamiela)

12:30 GOGOETAREN PLAZA. Istorio bat... nola kontatu. Solasaldia. Elena Odriozola (ilustratzailea) eta Koldo Amestoy (ipuin kontalaria). Juan Luis Zabalak gidatua.

14:00 Argentinan Euskaraz egitasmoa. Kinku Zinkunegi (HABE), Miren Arozarena (FEVA)

15:00 Xalbador azken bidean. Maiatz argitaletxea

15:30 Barnealdeko iraultzen loraldia. Amaia Lasa (Zortziko)

16:00 Herrigintzatik ARGIA indartuz. Estitxu Eizagirre eta Iraitz Agirre

16:30 Neskak eta mutilak. Norbera den bezalakoa. Aingeru Mayor (egilea)

17:00 Eskafandra. Emakumeak, arraza eta klasea. Jakin eta Elkar

17:30 Euskal kultura eta EKE Iparraldeko Herri Elkargo bakarrean. Hitzaldia. Pantxoia Etchegoin (EKE)

18:30 GOGOETAREN PLAZA. Telebista, gaur eta bihar, mahai-ingurua. Xabier Landabidea (Deustuko Unibertsitatea), Andoni Aranburu (EITB) eta Kanaldude. Marijo Deograsiasek gidatua.

ABENDUAK 4, IGANDEA

10:30 Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak. Estibaliz Amorrortu, Jone Goirigolzarri (egileak)

11:00 Emakume bertsolariak. Ahanzturatik, diskurtso propiora. Gema Lasarte (EHU) eta Izaskun Landaida (Emakunde)

11:30 Lehen Eusko Jaurlaritza Bilbon (1936-1937). Bilbao 700 Fundazioa eta liburuaren egileak

12:30 GOGOETAREN PLAZA. Istorio bat... nola plazaratu. Solasaldia. Mikel Soto (editorea) eta Irantzu Lekue (artista plastikoa). Maite Bidartek gidatua.

14:00 Ez dut gogoratzen. Ixone Ormaetxe eta Pablo Salgado

14:30 EKIN. Argitalpen eusko argentinarrak Kinku Zinkunegi (HABE), Miren Arozarena (FEVA)

15:00 Folk euskaldun(berria)ren garaia, euskaldunberrion ahalduntzea musikaren arloan eta hura sortzeko ikuspegi berriak. Solasaldia. Mikel Uraken

15:30 Musika Bulegoko Urtekaria. Myriam Miranda, Jabiertxo Andiearena, Raul Urkiza (Musika Bulegoa)

16:00 Agoten in memoriam. Maiatz argitaletxea

16:30 Euskara irabazteko bidean. Garikoitz Goikoetxea

17:00 Etxea. Juan Karlos Etxegoien "Xamar" (egilea), Xabier Monasterio (Zenbat Gara) eta Jose Angel Irigaray (Pamiela)

17:30 Kartzela kalera! Emakumea eta kartzela. Jardunaldia eta DVD aurkezpena. Iratxe Urizar (GITE-IPES), Estibaliz de Miguel, Leire Martinez

18:00 GOGOETAREN PLAZA. Ondarea, ezezagun hori, mahai-ingurua. Oier Gorosabel (ADES) Gaizka Aranguren (LABRIT) eta konfirmatzeke dagoen gonbidatua. Eider Olazarrek gidatua.

ABENDUAK 5, ASTELEHENA

10:30 Lea-Artibaiko ipuinak. Jabier Kaltzakorta (idazlea), Seve Calleja (koordinatzailea)

11:00 No pudimos ser amables. ELA 1976-2006. German Kortabarria (egilea), Xabi Antza (Robles Arangiz Fundazioa)

11:30 'Hizkuntza eskubideak bermatzeko protokoloa: Gizarte eragileen ahalduntze historikoa'. Paul Bilbao (Kontseilua)

12:30 GOGOETAREN PLAZA. Istorio bat... nola haizatu. Solasaldia. Aizpea Goenaga (Etxepare Euskal Institutua) eta Beñat Achiary (musikaria).

14:00 Euskal Hedabideen Behategia: datozen erronkak. Mahai-ingurua. EHU/UPV, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Hekimen Elkarte

15:00 Ortzadar saria. Deia taldearen eskutik

16:00 Basker. 1960ko hamarkadako euskal kulturari buruzko suediar dokumentalak. Iñaki Goirizelaia (UPV/EHU), Argibel Euba (autorea), Gidor Bilbao (Mikel Laboa Katedra)

16:30 Euskal Herriko Unibertsitateko itzulpen teknikoak. Iñaki Goirizelaia (UPV/EHU), Iñaki Iñurrieta (itzultzailea), Elhuyar Fundazioa

17:00 Ilargiaren Egutegia, Bizi Baratzea. Jakoba Errekondo eta Pello Zabala

17:30 Zutik ozta-ozta nator. Benan Oregi Iñurrieta

18:00 GOGOETAREN PLAZA. Andrazkoa, plazan mahai-ingurua.

ABENDUAK 6, ASTEARTEA

10:30 Loraldia 2017. Loraldia Elkarte

11:00 Hiztegi Errimatua. Xabier Amuriza

11:30 Iparraldea baloratu musikak lagun: Hegalaldia egitasmoa. François Maton (Atabal), EHZ eta Ainhoa Datcharry (Moi Moi kolektiboa)

12:30 GOGOETAREN PLAZA. Istorio bat... nola asmatu. Istorio bat... nola asmatu. Solasaldia. Harkaitz Cano (idazlea) eta Lara Izagirre (zinemagilea). Fermin Etxegoienek gidatua.

14:00 (Euskal) Literaturaren kontra (eta alde). Iban Zaldua (egilea), Mikel Ayerbe, hitzaurregilea, eta Xabier Mendiguren editorea.

14:30 HAMEKA karrikako arte eta euskal antzerkiaren Fabrika. Filgi Claverie (Errobi herri elkargoa)

15:30 El siglo de Luis Ortiz Afau. Ander Izagirre

16:00 Desagerpenaren aurrean: euskalduntasun iraultzailea. Urtzi Ithiza (Lemuria)

16:30 Txillardegiren borroka abertzalea. Pako Sudupe (idazlea) eta Pruden Gartzia

17:00 Euskarari gorazarrea. Pello Iturria Sarasibar (egilea)

17:30 Azterketa marxistarako apunteak. GITE-IPESen eskutik

18:00 GOGOETAREN PLAZA. Edukiontzia nola bete, mahai-ingurua. Maider Beldarrain (Tabakalera), Nerea Fillat (Katakarak) eta konfirmatzeke dagoen gonbidatua. Fermin Etxegoienek gidatua.

AZOKA TB

Emisio jarraitua Azokak irauten duen bitartean, 10:30etik 20:00etara.

Azokaren begiak, belarriak eta ahoa:

Gertatzen ari dena eta etorriko dena erakutsi eta kontatzen du euskarazko tokiko telebistetan eta, nonahi, streaming bidez durangokoazoka.eus webgunean.

Landakoko platotik zuzenean:

Amaia DJ, Azokan Gaur, etab.

Argentinako euskal komunitateak standa jarriko du Azokan

Euren abizenak Argentinan izan duen zabalkundea ezagutzeko aukera emango dute bisitariek

➤ EUSKAL ETXEA J.Guenetxea

Argentinako euskal komunitateak standa jarriko du, lehenengoz, Durango Azokan. Gerediaga Elkartek prentsa oharrean azaldu duenez, "Durango Azokak bultzatu zuen iaz Euskal Etxeen presentzia kulturaren plazan, Eusko Jauritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritzagaz elkarlanean, Euskal unibertso osoarengana heltzeko asmoz". Horrela, iaz Bartzelonako Euskal Etxea gonbidatu zuten, eta aurten Argentinako euskal komunitatearen txanda izango da.

Solasaldiak Aretoan


FEVA Argentinako Euskal Etxeko eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritzako kideek hainbat solasalditan parte hartuko dute Azokako Areto Nagusian. Abenduaren 2an, 14:00etan, *Argenti-*

nako euskaldunak berbaldian gaur egun Argentinan bizi diren euskaldunen arazoak eta errealitatea ezagutzera emango dute. Abenduaren 3an, 14:00etan, *Argentinan euskaraz* egitasmoaren aurkezpena egingo du-

FEVAko kideek hainbat solasalditan parte hartuko dute Azokako Areto Nagusian

te Kinku Zinkunegik (HABE) eta Miren Arozarenak (FEVA). Abenduaren 4an, 14:30ean, Ekin argitaletxeak lau titulu aurkeztuko ditu. Argitaletxe hau azokara datorren lehenengo aldia da.

Argentinako Euskal komunitatearen standean hainbat



FEVAk standa jarriko du Durango Azokan, lehen aldiz.

argitaletxetako argitalpenak kontsultatzeko aukera emango dute. Horrez gain, euskal abizenen zabalkundea Argentinan jarraitzeko eta ezagutzeko aukera eskainiko dute. Stand honen kudeatzailea FEVA izango da.

Etorkin gehien Argentinara

Argentina izan zen Euskal Herriatik etorkin gehien hartu zuen herrialdea. Euskaldunen aztar-

na toponimian eta abizenetan geratu da. Argentinarren %10, hau da, 4 milioi pertsona inguru, euskaldunen ondorengoa da.

Munduan dauden 190 euskal etxeetatik 84 Argentinan daude. Lehenengoa 1877. urtean sortu zuten Laurak Bat zentroagaz. Euskal nortasuna mantentzeko eta belaunaldi berriei transmititzeko lana egin dute euskal etxeek Argentinan. FEVAko

kideek diotenez, Argentinako Euskal Aste Nazionala ospatzen dute urtero. Jaialdi horretan Argentinako euskal etxe guztiek parte hartzen dute. Urte bakoitzean herri batean antolatzen dute. Inguruko herrialdeetako euskal etxeetako ordezkariak ere joaten dira jaialdian parte hartzera. Horrez gainera, urtean zehar euskal etxe bakoitzak bere programazio propioa izaten du.



Clase A 200 d SPORTIVE AMG Berria, hilean 220€-ren truke.

Clase A SPORTIVE AMG heldu da, txundituta utziko zaituen esperientzia bizi ahal izateko. AMG Barruko eta kanpoko diseinua, AMG 18"ko aleaziozko hagunak, DYNAMIC SELECT (4 gidatze-sistema), lozagia bikoitza eta 7 abiadura dituen 7G-DCT aldaketa automatikoa direla eta, Clase ASPORTIVE AMG-k errepidea eskatzen ari zitzaien kirol-aldaketa ekartzen ditu. Probatzeko prest? Zuretzat da, hilean 220€-ren truke, 48 kuotatan (sarrera 9.689,09€, azken kuota 17.918,86€**, ITN %7,95, UTB %9,28). Eta Fidelity Zerbitzua, hilean 36€-ren truke, 3 urteko bermea eta 5 urteko osoko mentenimendua, 100.000 Km egin arte (higatutako piezak barne, pneumatikoak izan ezik).

Ziklo nahasian kontsumoa 4,0-3,8 l/100km eta CO₂-a isurtzea 103-99 g/km.

*Finantzaketa-eritidea: Clase A 200d SPORTIVE AMG eta siozketa automatikoa, I.P. 31.675€ (jergak eta garrakioa barne; aurre-entregatze gastuak kanpo), Mercedes-Benz Financial Services España, E.F.C., S.A.-ren Alternatibo programari esker. Bruselas Etorbidea 30 - 28108 Madrid. Balioak: 2016/12/31ra arte onartutako eskariak eta kontratuak indarrean; bezeroak 14 eguneko epea dauka eskaintzari uko egiteko. Finantziatu beharrek zerbatekoa 21.985,91€. Hilean 220 €, 48 kuotatan, azken kuota 17.918,86 €, sarrera 9.689,09 €, ITN %7,95, zabalte-komisioa 657,38 € (%2,99), UTB %9,28. Gaitira ordaindu beharrek zerbatekoa 29.136,24 €. Gaitira epeko zerbatekoa 38.825,33 €. Balioak eskaintza 20.000 Km/urtean. Azken kuotarako 3 aukera: ibilgailua aldatu, itzuli (kontratutaren baldintzak bete gero) edo ibilgailua eskuratu, azken kuota ordaindu ondoren. Argazkiko modeloa ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es/en.


AMG
DRIVING PERFORMANCE



AGUINAGA
Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
info@aguinaga.es | www.aguinaga.es

Borja Industrialdea, 2. Nabea 3
48340 ZORNOTZA
Tel.: 94 630 17 47

Justo Alberdi | Argizaiola Saria | Iurreta, 1945



Justo Alberdik urteak daramatza euskararen aldeko zenbait elkartetan lanean.

> ELKARRIZKETA Aimar Esteban Justo Alberdik (Iurreta, 1945) bizitza osoa darama herrigintzan eta kulturagintzan lanean. Gerediagan, AEKn, Mikel Deuna dantza taldean, Iurretako jai batzordean eta beste hainbat elkartetan ibili da. Iurretako ikastolaren sortzaileetarikoa bat izan zen, eta baita gau eskoletako irakaslea ere. Eskualdean bertsolari munduaren bultzatzaile handienetako bat izanik, herriko lehen bertso eskolaren sorreran izan zen, eta bertsolari elkartearen kidea da.

Zer suposatzen du Argizaiola saria jasotzeak?

Poztasuna sentitzen dut Gerediagak oinarritzko lana kontuan hartu izanagatik. Inurri lana, ezkutuko lana, lan isila saritu dute. Ni Bizkaiko ordezkari hautatu naute, baina ni bezain onak edo hobekak daude. Eskerrak eman behar dizkiet beste inurri guztiei, auzolana eta talde-lana da gurea, denon artean egiten

dugun lana. Hor sustatzen da oinarri guztia. Elkarregaz lan egiten badugu, gauzak ondo irtingo dira.

Ibilbide luzea daukazu herrigintzan eta kulturagintzan: Gerediagan, AEKn, dantza taldean, bertso eskoletan, txirindulari elkarteetan, jai batzordeetan... Non aurkitu duzu satisfazioerik gehien?

AEKn irakasle nenbilenean talde berezi bat izan nuen. Irakasle taldea zen, eta batzuek berba bakar bat ere ez zekiten euskaraz. Hala ere, bi urtean ikastea lortu zuten. Irakasleek euskara ikasiz gero, argi neukan gero beraiek irakatsiko zutela eta, horren ondorioz, hurrengo belaunaldiek euskaraz bizitzeko aukera izango zutela. Horrek asko betetzen ninduen. Euskara ardatza izan da ibili naizen ekimen guztietan, nahiz eta arlo ezberdinetakoak izan eta jende ezberdinagaz egon. Kanpotik etorritakoak gure nortasunaz jabetzea, Ema-

kumeen Biragaz egin dugun bezala, adibidez, oso pozgarria da. Elkarte eta ekintza guztiak talde lanaren fruitu izan dira, eta meritua ez da nirea bakarrik izan.

Nola ikusten duzu Durangoko Azokak urte hauetan izan duen eboluzioa?

Handitu egin da. Ume izatetik

“**Eskertzekoa da inurri lana, ezkutuko lana saritu izana**”

“**Azoka euskal kulturaren arlo guztietara zabaldutako altxorra da**”

“*Militante lana zen euskararen aldeko elkarteetan egiten genuena*”

Gerediaga elkarteak “inurri lana” egin duten pertsonen eman die, aurten, Argizaiola saria

heldu bihurtzera pasatu da. Gerediagak berak ere eboluzioa izan du. Azoka asko aldatu da kantitate aldetik, azala aldatu egin da, baina hasierako filosofia berberagaz jarraitzen du. Kulturako arlo guztiak jorratzera heldu da, eta orain Euskal Herriko altxorra daukagu, zaindu beharrekoa.

Euskara elkarteetan ibilitakoa zara. Zure ustez, behar bezalako babesa jasotzen dute?

Ez dute behar besteko babesa jasotzen. Ez dago laguntzarik, ez literaturan, ez antzerkigintzan, ez euskara irakasteko orduan. Instituzioek guztion dirua erabiltzen dute; beraz, dirua denona da, eta euskara denon ardura da. Auzolanean eta elkarlanean sorturiko proiektu txikiek ere babesa jaso beharko luketela uste dut. Makroproiektuen gainetik lehentasuna izan beharko lukete horrelako lan eta proiektu txikiek.

Nolakoa da Durangoko Azokaren eta bertsolariaren arteko erlazioa?

Bertsozale elkarteak badauka stand bat Azokan, baina, agian, tailerren bat, hitzaldiren bat, edo guneren batean saio txikiren bat edo beste egitea ondo egongo litzateke. Gure kulturaren arlo garrantzitsua da bertsolari eta noski, Azokan bere lekua mezezi du.

Bertso eskolen sorrerak garrantzi handia izan zuen euskara zabaltzerako orduan.

70eko hamarkadaren bukaeran eta 80koaren hasieran egindako euskalduntze prozesuaren jarraipen bat izan ziren bertso eskolak. Militante lana izan zen euskararen aldeko elkarteetan lan egitea. Gehienok lan bat geneukan, eta euskarari eusteko beste esparru bat ziren bertso eskolak. Garrantzi handia izan dute normalizazio prozesuan.

Durangaldeko bertsolariaren maila harro egoteko modukoa da.

Durangaldean bertsolari oso onak izan ditugu beti. Unai Iturriaga eta Igor Elortza txapelduinak izan dira, adibidez. Orain, Iurretan, Eneko Abasolo ‘Abarkas’ daukagu, Bizkaiko final batera heldu dena. Iurretako eta Durangaldeko txapeliduna ere izan da. Azken aldian, egia da eskualdeko bertsolariak loratu dela, eta badaude maila oneko bertsolariak: Zaldibarko Garikoitz Sarriugarte, Mallabiko Beñat Ugartetxea... Badago etorkizuna, dudarik barik.

Kristina Mardaras zure bikotekidea txapelketa nagusian parte hartutako lehen emakumea izan zen. Gaur egun emakumeak bertsolarietan presentzia handiagoa daukala uste duzu?

Eboluzio handia izan da, eta orain emakume gehiago ikus daitezke. Hala ere, ez da behar besteko aurrerapenik egin emakume bertsolarien egoera hobetzeko. Neska asko hasten dira bertsoetan, baina denboragaz utzi egin behar dute. Zoritxarrez, etxera loturik dago oraindik emakumea, eta tartean umeak badaude, zaila izaten da plazaz plaza ibiltzea. Kontziliario familiarra bertsolarietan ere ez da erraza, eta horregatik emakume askok uztea erabakitzen dute.

Azokan ibiltzea gustatzen zaizu? Ze gune duzu atseginen? Aurten, ba al daukazu buruan zerbait erostea?

Urtero joaten naiz Azokara, bai bisitari moduan, bai Gerediagako standean txandak egitera. Bisitari moduan, hitzaldiren batera edo liburu aurkezpenetara joaten naiz. Baita Argizaiola ekitaldira ere. Lehenengo egunetan nobedadeak ikustera pasatzen naiz, erosi gura ditudanak apuntatu eta, azken egunean, erosketak egitera bueltatzen naiz.

Jose Ramon Zengotitabengoa | Argizaiola saria | Zaldibar, 1938

“Euskaldun guztiok elkar ezagutzen dugu Ipar Amerikan”

Zengotitabengoak euskara eta euskal kultura bultzatu ditu Ipar Amerikako diasporatik

> ELKARRIZKETA J. Guenetxea
Jose Ramon Zengotitabengoa 1938an jaio zen, Zaldibarran. Ikasketak egitera joan zen atzerrira, eta ordutik mundu osoan ibili da lanean. Azken hiru hamarkadak eta oraingoaren erdia Ipar Amerikan egin du, Chicagon. Diasporatik euskal kulturaren alde egingako “inurri” lanaren aitortza moduan, Argizaiola saria jasoko du, zapatuan, beste hainbat pertsonagaz batera.

Noiz utzi zenuen Zaldibar?
Gazte nintzela, Zaldibar eta Durango artean bizi izan nintzen. Hamabost urte gaz kanpora joan nintzen ikastera. Liejara (Belgika) joan nintzen unibertsitate ikasketak egitera, bost urterako. Handik Ingalaterrara abiatu nintzen, eta bederatzita urte eman nituen han. Gero, Alemaniara beste urte birako joan nintzen. Handik Ipar Amerikara bidaiatu nuen. Azkenik, Chicagon 35 urte eman nituen.

Zergatik erabaki zenuen Chicagon gelditzea?
Europar eta Euskal Herrian burdina erosten zuen enpresa batentzat egiten nuen lan Chicagon. Han familia sortu nuen, eta nire hiru semeak han bizi dira. Emaztea hil egin zen, eta Euskal Herrira erretiratu naiz. Orain Gasteizen bizi naiz.

Zelakoa da Chicago? Gustura bizi izan zara bertan?
Ipar Amerikako hiririk ederrena da. Munduko bost arkitekto-rik onenak han bizi dira, herriak arkitektura ederra baitu.

Zelan bultzatu zenituen euskara eta euskal kultura diasporatik? Zein ekitaldi antolatzen zenituzten?
25 urtez, Amerikan Euskal Herriko pertsonaiak omendu genituen. Jose Antonio Agirre New Yorken bizi zela omendu genuen. Aita Madina ere bai. Txutxo Larrañaga eta Piston pilotari eza-gunak Miamin saritu genituen.

“**Europar burdina erosten zuen enpresa batean egin dut lan**”

Ipar Amerikatik kanpo, Mexikon eta Argentinan ere omenaldiak egin zenituzten. Mexikon Colegio de las Vizcainas omendu genuen. Hauxe da munduan sortu dugun euskal instituziorik garrantzitsuenena. Eskolaren sorrera 1703koa da. Ambrosio Meabe durangarrak eta Oiartzungo bi gizonak sortutako proiektua izan zen. Zortzi futbol-zelairen besteko eremua hartu zuen eskola bat zen, Mexiko hiriararen erdigunean. Umezurtsak jasotzen zituzten, eta irakasleek ama eta irakasle pa-

“**Ipar Amerikako jaialdietan euskaraz egiten dugu beti berba**”

“**Hasieran joan zirenak artzainak ziren, eta euskaraz berba egiten zuten**”

pera betetzen zuten. Mexikoko hezkuntzarik onena eskaintzen zieten. Irakasle horiek Mexikoko pertsonarik garrantzitsuenekin ezkontzen ziren. Queretaroko korrejidorea bizkaitar horietako bat zen. Eraikina bera barrokoa da, zoragarria. Era berean, Argentinan Enekoetxean egin genuen omenaldia.

Argizaiola sariagaz euskararen alde lanean jardun duten hain-



Jose Ramon Zengotitabengoa Argizaiola saria jasoko du.

bat ‘inurri’ ordezkatzeko dituzue. Zelan hartu duzue saria?
Oso pozik nago. Ipar Amerikan euskaldunon artean denok elkar ezagutzen dugulako. Han euskara gehiago egiten da Euskal Herrian baino. Urtean egiten diren jaialdietan, batzuek kilometro asko zeharkatzen dituzte, elkarrekin egoteko. Horregatik, sari hau jasotzeak poz handia ematen didala aitortu behar dut.

Zenbat jaialdi antolatzen dituzue urtean zehar?
Urtean 30 bat jaialdi prestatzen dira, eta leku denetatik joaten gara. Eta euskaraz egiten da beti. Urrun egon arren, euskal nortasunari eutsi diogu.

Ahalegin berezia egin duzue euskararen erabilerari eusteko eta euskara transmititzeko?
Hasieran joan zirenak artzainak ziren, eta denek zekiten euskaraz. Argentinara edo Mexikora joan zirenak, berriz, denak ez ziren euskal hiztunak. Horregatik, Ipar Amerikako komunitatean eutsi egin diogu euskarari.

Bizkaitarrak nora joan ziren?
Bizkaitarrak Aulestia, Markina, Arbaiztegi ingurukoak ziren asko. Gehienak Boisera joan ziren. Besteak Nafarroa Beherakoak ziren. Euskaldun gehiago daude Ipar Euskal Herrikoak, bizkaitarrak baino. Hauek Frantziako iraultzaren ostean joan ziren San Frantziskora.

Atxondoko
XX. nekazaritza
eta artisautza azoka

ABENDUAK 4, DOMEKA

Paddy Rekalde | Idazlea | Bilbo (Durangon bizi da), 1964

“Utzi kaja bat umearen eskura, eta berak ikusten duen mundu horretan sartuko da”

Idazle bilbotarrak 8-10 urte arteko umei bideratutako ‘Kartoizko kaja’ ipuina argitaratu du.



> HAUR LITERATURA J.Derteano Eskolako irakaslea izanda, umeak eta euren mundua eguneroko ogia dira Paddy Rekalderentzat, baina aurten arte haur literatura landu barik zeukan. ‘Kartoizko kaja’ esparru horretan argitaratzen duen bigarren ipuina (Elkar argitaletxea) du. Biak hile gutxiren barruan etorri dira, eta ez dira bakarrik izango, aurreratu duenez.

Ipuina bideratuta dagoen adin tarteko seme bat duzu. Semea motibazio izan duzu haur literaturan hasteko, ala buruan zenerabilen zerbait zen?

Hiru seme-alaba ditut, eta nagusiena 17 urtekoa da. Orduan, adin fase hori, zortzi-hamar bi-

tartekoa, hainbat aldiz pasatu dut. Gainera, eskola batean lan egiten dut umeekin. Beste alde batetik, beti gustatu izan zait haur literatura. Bigarren mailako literatura ematen du, baina badu bere altxor kutsua.

Baten batek pentsatu dezake haur literatura erraza dela, baina ez da horrela.

Bai, eta neurri batean horixe izan da nik orain arte haur literatura ez idazteko arrazoia. Berrria egunkarian haur literaturako kritikak egiten dituen Imanol Mercero laguna dut, eta beti animatu izan nau haur literatura idaztera umeen inguruan nabilekako, esaterako, eskolan umeentzako antzerkiak idatzi izan ditudalako gero euren antzeztu ditzaten. Beti ibili

naiz inguruan, baina sartu barrik. Izan ere, helduentzat idazten duzunean helduentzat zabilta, eta kito. Ez duzu begiratzen gizona edo emakumea den, 30 edo 48 urte dituen... Baina umeen kasuan desberdina da sei urtekoentzat edo hamar urtekoentzat idaztea. Urte gutxiren barruan gauzak asko aldatzen dira euren munduan. Ez hori bakarrik. Euskara mota ere kontuan hartu behar da. Ez da berdina sei urteko batentzat edo hamabiko batentzat idaztea. Gustuak ez ezik berbakera ere aldatzen da.

Ipuineko protagonista zapi urteko Anartz eta bere kartoizko kaja dira.

Alaba txikia zenean konturatu nintzen umeek askotan ez dituztela behar traste oso mo-

dernoak edo erositakoak jolas-tu ahal izateko. Kaja bat hartu eta itsaspeko bat edo furgoneta bat bihurtzen dute. Horren adibideak ikusita ditut kalean eta nire etxean bertan. Horrelako gauzek umeen imajinazioa suspertzen dute.

Hiru seme-alabaren aita eta eskola bateko irakaslea izanda, inspirazio iturriz inguruta bizi zara.

Umeekin egonda gertutik ikusten duzu euren barruko mundua zelan ateratzen duten. Makila bategaz pelikula bat imajinatu dezakete. Nik ez dakit zelan ibiliko diren umerik ez duten haur literaturako idazleak. Niri balio izan dit inguruan izateak.

Inspirazio iturri ez ezik kritikari lana ere egin dizutela esan didate; semeari idatzitako irakurtzen zeniola gustatzen zitzaion ala ez jakiteko.

Ez bereziki ere, baina, bai, publikatu aurretik istorioak kontatu izan dizkiet, eta gustatu zaizkie. Ipuinetan irakurritako pasarte batzuek gure etxean bizitakoaren antzerako kontuak gogoratu dizkietela esan didate.

Anartzentzat kaja bat mundu berrietarako atea da. Zure

umezaroan izan zenuen kajarrik edo antzerkorrik?

Gaur egun umeen jolasak oso elektronikoak dira: play stationak... Txikitan ez zen horrela. Egur batzuekin txabola bat egingo genuen, edo Bilboko itsasadarrean txalupa moduko bat... Hiri-koak izan arren nahiko asilbestratuak ginen. Uste dut orokorra zela. Filosofia kaletarra zen lehengoa. Kalean gora eta kalean behera.

Joko elektronikoak aipatu dituzula, gurasoek play station jokoak erosten dizkiote Anartz, baina honek nahiago du kaja. Benetako gurasoek galdetu dute horrelako kaja bat non erosi dezaketen!

Altzariren bat etxera ekartzen dugunean, horiek datozen kajak bota egin ohi ditugu. Baina, utzi kaja bat umearen eskura eta, zuk ezer esan barik, berak ikusten duen mundu horretan sartuko da. Oso gauza naturala da.

Haur literaturagaz jarraitzeko asmoa daukazu?

Bai. Neguan zehar sei urte ingurukoentzako beste ipuin bat aterako dut. Behin lehenengo pausoa emanda, eta argitaratzeko aukera badudanez, joango dira gauza gehiago ateratzen. Laugarren bat ere badago laban udaberri-rako. Lan bat exijitzen duen arren, helduentzat baino askoz goxoagoa eta leunagoa da haur-erentzat idaztea. Helduentzat idazten jarraitzen dut, baina tartean hau sortu da, eta gozatzen ari naiz.

Eider Eibar zornotzarrak egin ditu marrazkiak

‘Kartoizko kaja’ ipuinean testuak adinako tokia hartzen dute marrazkiek, eta arlo horren ardura Eider Eibar zornotzarrak izan du. Marrazkiak sortzerako orduan “askatasun osoa” izan duela

dio. Anartzegaz eta kajagaz batera, gurasoak ere ipuineko “oso protagonista” ikusten ditu. “Gurasoak irudikatu nituen lehenengo, eta haiek erakutsi zidaten zelakoa izango zen Anartz”, gogoratu du.

Azkonizaga

Ortuzar, 1 · Izurtza (Bizkaia) · Tel./Faxa: 946 810 652
 azkonizaga@azkonizaga.com
 www.azkonizaga.com

Bizkarra
 Jatetxea

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO
 Tel.: 946 812 026

**Ez daukazu janaria prestatzeko astirik?
 Geuk lagunduko dizugu**
 Etxera eramateko janaria, betikoa, etxeokaren modukoa

EUSKARAREN

eguna 2016

ELORRIO
ABENDUAK 3
LARUNBATA

Herriko plazan alkartuko gara Euskararen Eguneko pankarta udaletxeko balkoian jartzeko

11:00 **“GAUR ERE EUSKARAREN EGUNA”**

11:10
12:00

JUMP-FIT

Herriko plazan edo plazako frontoian jarriko dan karpan. Monitorearen esanetara animatu euskararen alde salto egitera.

11:30

HERRI LASTERKETA

Dorsal banaketa plazan eta lasterketa hasiera 12:00etan. 4 kilometroko ibilbidea Elorrio inguratzen.

“Urratsak euskaraz konpleju barik, emoion/k

16:30
18:30

**Umeentzat eta ez hain umeentzat
TAILERRAK PLAZAKO KARPAN**

ESKULANAK, AURPEGI MARGOKETA, TAILERRAK, MARRAZKIEKIN MURAL OSAKETA...

17:30

**FLASHMOB + KOREOGRAFIA
+ D I S K O F E S T A**

Oihan Vegak dinamizatuta plazan.

18:00

TXOKOLATADA

22:00

ZINEMA

ARRIOLA ANTZOKIAN

Euskaraz egindako azken pelikula.

“ I G E L A K ”

Leguntzalea



Elorrioko udala

Antolatzaileak



ARRIOLA



ELORRIKO GAZTIOK EUSKARAZ

BPXport
kirol zerbitzuak



INTXORTA
asti elkartea



www.elorrio.eus



Etxebizitzak salgai 1, 2, 3 eta 4 logelatakoak



KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

Durangoko herrigunean

Energia eraginkortasun handiko etxebizitzak

Hiriko txaletak

Oiz mendira begiratokiak

Leku zabalak

***Etorri
ikustera!***

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

www.zarateyexpe.com
Tel.: 946 816 673

Kontsultatu beste aukerak Iurretan, Elorrion eta Durangon

Irati Eguren Arruti eta Miren Amuriza Plaza | 'Bainera bete itsaso' album ilustratua kaleratu dute |

> BERBAZ Aitziber Basauri
Elkarregaz egindako lehenengo proiektua dute Miren Amurizak (Berriz, 1990) eta Irati Egurenak (Durango, 1981) 'Bainera bete itsaso'. Pozik eta "ilusio handiagaz" hartu dute labetik atera berri den album ilustratua. Horregaz lotuta, ikus-entzuzkoa ere sortu dute Mursegoren musikagaz, eta abenduaren 30ean aurkeztuko dute. Hala ere, datozen egunetan horren zerbait zertzelada ikusteko aukera egongo da sare sozialetan.

Nola sortutako proiektua da 'Bainera bete itsaso'?

Irati Eguren: Urtebete pasatxo da Durangoko Arteka liburutandian erakusketa jarri nuela ilustrazio batzuekin, eta horietako baten zati bat hartu zuen Mirenek. Hain justu, *Bainera bete itsasoren* azalean ageri dena. Gerora, aurpegi horren beste zatia hartzeko gogoagaz bueltatu zen Miren, baina, erakusketa kenduta nuen ordurako. Hartu-emanen jarri ondoren oparitu egin nion, eta, bueltan, ilustrazio horien inguruko bertso batzuk idatzi zituen, opari moduan. Orduan sortu zitzaigun horregaz guztiagaz zerbait egiteko gogo. Elkar argitaletxean album ilustratu bat egiteko aukera ikusi zuten, eta aurrera egin genuen. Oso erraza izan da elkarregaz lan egitea.

Itomen baten kontakizuna da 'Bainera bete itsaso'. Eta Mara da protagonista.

Miren Amuriza: Mara da protagonista, bai. Ez da, ez neska, ez mutila; ez du adin zehatzik. Beren beregi diogu horrela, apropos dago eginda, bakoitzak berea ikusi dezan. Ume moduan azaltzen da Mara, eta aita duela da dakigun bakarra. Horrela egiten du aurrera istorioak, egoeraren aurrean apurka-apurka Marak airea falta du, itozten dabil. Ezin du arnasarik hartu hor agertzen diren moti-

"Halako tentsio handidun egoera baterako ihesbide bat irudikatu dugu"

Miren Amuriza eta Irati Egurenen 'Bainera bete itsaso' da Durangoko Azokako nobedadeetariko bat



bo batzuegatik, eta une horretan duen ihesbidea da komuna joan, atea itxi, bainera bete eta urpean sartzea. Urpean topatzen duen itsaso horretan arnasa hartzeko eremu bat topatuko du. Itomena esango du batek, beste batek antsietate-krisia, hurrengoak negarraldi bat eta ondorengoak platerak apurtzea. Bakoitzak bere erara adierazita, baina, halako tentsio handidun egoera baterako ihesbide bat irudikatu dugu.

Eta nolatan sentsazio horiek?

I. E.: Ilustrazioak berak ere hori adierazten zuen, nolabait.

M. A.: Iratiren ilustrazio hartan erdia arraina, erdia umea den

“

Prozesu osoan, hartu-emanen egon dira testua eta irudia”

aurpegi bat ikusi daiteke; halako hibrido bat. Aurpegi horren atzean zer egon zitekeen pentsatzen hasita, ume bat arrain nola bihurtu daitekeen, heldu nintzen itomen honetara. Seguruenik, bizitzako beste momentu batean egin izan banu, irudi berberaren atzean itomena beharrez euforia ikusiko

nuen. Halaxe bizi izan nuen, eta hori ekarri nuen testuetara.

Irudiari dagokionez, zer izan duzu kontuan, Irati?

I. E.: Arkatza erabili dut, eta ura islatzeko, akuarela; urdin turkesa erabili dugu, itsasoa ahalik eta garbien islatzeko. Garrantzi handia eman gura izan diogu urari, eta hori indartzeko, arkatzez dago eginda beste guztia. Arkatza oso eroso sentitzen naizen medioa ere bada, eta uste dut oso ondo egiten dutela bat biek. Baineraren sentsazio hori transmititu guran, zuriuneek ere garrantzi handia hartu dute, lasaitasun edo baretasun puntu hori ematen diote.

Lehenengo album ilustratua duzue. Nola joan da?

I. E.: Oso ondo! Oso erraza izan da elkarregaz lan egitea. Prozesu guztian hartu-emanen egon dira testua eta irudia, testua hartu eta hori iruditan jartzea beharrez. Eskuetan hartzean ilusio itzela sentitu dut.

M.A.: Bestelako proiektuetan parte hartu dudun arren, neuririk irrendakoak dira *Olatu bat daukat sabelean* (2015) eta *Bainera bete itsaso*. Bizipen bat sentimenduetatik hitzetara ekarri ondoren, eta, denbora batera, berriz irakurtzeak inpresionatzen bazaitu, are gehiago beste diziplina batera eramanda; kasu honetan marrazkiekin. Dena liburu batean batuta ikustea hunkigarria da.

Nori dago zuzenduta 'Bainera bete itsaso'?

I.E.: Baineran murgildu gura duen edozeini. Album ilustratuak gero eta gehiago erakartzen ditu helduak ere. Testuak, nahiz eta laburrak izan, oso indartsuak izan daitezke, eta irudiei erreparatuz gero, testuek ez diotena esan dezakete. Irakurtzeko beste era bat da.

M.A.: Album ilustratuek marrazkiak dituztenez, eta dendetan haur literaturaren atalean sartzen direnez, umeentzat diren aurreiritzia dago. Muga hori apurtu gura da, eta *Bainera bete itsaso* edozeinek irakurtzeko liburua da.

Bideoa ere egin duzue.

I.E.: Bai, liburuko sentsazioak batu ditugu, testua egokituz eta marrazkiei mugimendua emanez; Mursegok jarri dio musika. Artekan aurkeztuko dugu.

San Nikolas Eguna

VI. IZURTZAKO

VI. GaztARDOgi

FERIXA

ABENDUAK 6

Martitzena, 11:00-15:00



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
www.bautistamuebles.com



**%25eko deskontua dendako altzari guztietan, urtarrilaren 5era arte:
bildumak aldatuko ditugunez, dendako erakusketa guztiak likidaziotan salduko ditugu**



**Zure erosketaren %100 finantzatzen dugu, eta martxora arte ez zara ordaintzen hasiko:
10 kuota sarrerarik, interesik, komisorik eta gasturik gabe**



**Zure proiektua diseinatu eta aurrekontua prestatuko dizugu, batere konpromisorik gabe.
Doako finantzaketa**



☎ 94 672 77 00

info@bautistamuebles.com

**Urbite Industriagunea, 4 - 2. pabiloia ABADIÑO
(Eroski merkataritza-gunearen ondoan)**

Erakusketaren Eraberritzea

“Ipuinen bitartez nagusien gauzak gaztetxoei kontatzea gustatzen zait”

Altzoko Erraldoia ipuina autoekoiztu du Fernando Torrecilla diseinatzaile grafiko eta ilustratzaileak

► **BERBAZ** Maialen Zuazubiskar Fernando Torrecillak ipuina eraman du Altzoko Erraldoiaren istorioa. Garain bizi den diseinatzaile grafiko eta ilustratzaileak 51. Durangoko Azoka honetarako kaleratu du bere lehen autoekoizpena.

Zelan bururatu zaizu Altzoko Erraldoiaren istorioa ipuina eramatea?

Duela hiru urte Apustua liburua kaleratu nuen, Berrizko elezahar baten inguruko ipuina. Lehenengo lan hura kalera nuenean, elezaharrak ipuina eramatearen ideia asko gustatu zitzaidan, eta orain urte batzuk Altzoko Erraldoiaren istorio hau aurkitu nuenean, hau ere ipuina eramatea ideia ona izan zitekeela iruditu zitzaidan.

Beraz, esan liteke kondairak gaztetxoei kontatzea gustatzen zaizula.

Bai, testuaren eta ilustrazioaren bitartez nagusien gauzak gaztetxoei kontatzea gustatzen zait. Gainera, esan daiteke nire lanetan irudiak direla nagusi, testu laburrek irudiari laguntzea gustatzen zaidala. Hala ere, aitortu behar dut, umeentzako ilustrazioak egitea betidanik gustatzen zaidala, baina aita izan nintzenetik sentimendu hori areagotu egin dela.

Orduan, esan liteke aita izateak zure lanbidean bide berri bat ireki dizula?

Egia esan, haurrentzako ipuina egiteko nahia aita izan nintzenetik handitu egin dela esan daiteke, bai. Azken batean, hau-

Fernando Torrecilla Lezeta | Idazlea | Garai, 1965



rren munduan gehiago murgiltzen zara. Baina, lehendik ere oso gustuko nuen haur eta gazteen literatura.

Azken lanera itzuliz, testua eta ilustrazioa egiteaz gain, zeuk autoekoiztu duzu Altzoko Erraldoia.

Lehen aldian izan da horrelako zerbait egiten dudala. Esperientzia oso polita izan da, autoe-

koizpenak eskaintzen duen askatasuna itzela da eta. Hala ere, egia da askatasun horrek bere arriskuak izan ditzakeela, hau da, norberak bakarrik gauza asko egin behar izaten ditu. Hala ere, nire ustez, autoekoizpenak merezi du.

Gaurtik aurrera azokan ikusi-ko zaitugu. Nola ikusten dituzu aurretik clauden egun hauek?

Egia esan, ez dakit zer aurkituko dudan bertan, baina, aurretiazko egunak urduritasun puntu batez pasatu ditut, bai. Azken batean, ipuin guztiak eskuartearen ditugu, eta orain horiek saltzeko gudan sartzen gara, liburu horiei denek bidea egiteko ordua iritsi da eta. Hala ere, badakigu bidea ez dela laburra izango, eta azokaren ostean ere saltzen jarraitu beharko dugula.

ERNE

“SD EIBAR” BIRUSA HEDATZEN ARI DA...

EIBARRERA ABONATU

Eta **PRIMERAKO AFIZIO BAT** kutsatu

Informatu zaituz: www.sdeibar.com/abonatuak edo 943 201 831

SDEIBAR

kutsatuzureafizioa




24 etxebizitza berri hirigunean

2 logela 225.000€
+BEZ- tik aurrera

3 logela 290.000€
+BEZ- tik aurrera

DURANGO MONTEVIDEO



Garaje, trasteleku eta pertsonalizazioa **BARNE.**

Informazio gehiago

946 462 041
www.sukia.com



Informazio hau aldatua izan daiteke arrazoik tekniko, juridiko edo komertzialak direla medio.

Ion Andoni Del Amo | Soziologoa | 1974, Durango

“Hobe da Esne Beltzaren patxanga, kanpotik Pitbull ekarri baino”

‘Party&borroka’ liburua argitaratu du Del Amok, euskal musikaren garapena aztertzeke asmoz

> MUSIKA Markel Onaindia
Zer gertatu da euskal musikagaz? Zelako aldaketa eman da? Musika entzun eta disfrutatzeko modua asko aldatu da azken urteetan, eta bere erabilpen sozial edo politikoa ere ez da lehengoaren berdina. Galdera horiei eta askoz gehiagori erantzuten die Ion Andoni Del Amok ‘Party&borroka’ liburuan. Doktore tesian landu, eta orain Txalapartaren eskutik egongo da irakurgai, bertsio laburtuago batean. Del Amoren ustez, asko kostatu da musikaren kontsumoan aldaketa bat ematea, baina gogoetarik egin barik gertatu dela dio.

Zer aurkituko du irakurleak zure lanean? Zelan egin duzu tesitik liburuturako egokitzapena?

Tesian egin nuena da, baina moldatuta. Marko teorikoa, metodologia eta hori guztia kenduta. Elkarrizketen analisisa sartu dut bakarrik, eta, beraz, errelato bat da praktikan. Testuinguru lez aurreko hamarkadetan gertatutakoa sartu dut: euskal kantagintza berria, Rock Radical Vasco, 90eko euskal rocka... Jakue Pascualek, Josu Amezagak eta beste batzuek ere landu izan dute. Bigarren zatian, 2000tik aurrera zer gertatu den.

Zergatik aukeratu duzu izenburu hori?

Lehen *martxa eta borroka* zen. Hortik sortu ziren txosnak, zenbait taberna, gaztetxeak, jarre-

ra eta ohitura batzuk... *Party* ipini dut, ingelesez festagaz, musika elektronikoagaz eta alderdi politikoekin lotzen delako.

Non daude emandako aldaketaren oinarriak?

Euskal kultura kontrakulturatik eraiki da urte askoan, batez ere hasieran. Euskara ez zen ofiziala, ez zegoen isntituziorik... Gero, uztarketa eman zen mugimendu alternatiboan eta euskal kulturaren artean. Hain indartsua izan zen espazio hori, 25 urtez iraun duela, eta antzeko musika edo estiloekin jarraitu dugu. Hori agortu denean, apur bat fosilizatu zelako agian, aldaketa bat eman da bat-batean, azken bost urteetan. Musika elektronikoa eta komertziala hainbat lekutan sartu dira, baita txosnetan ere. Kostatu egin da aldaketa ematea, eta ziurrenik gogoetarik egin barik gertatu da.

“

Ez da apurtzailea, lehen lez, ile luzea edo belarritakoak eramatea”

“

Aniztasuna zabalduko zela esaten zen, eta kontrakoa jazo da”



Musika erreibindikatzailerak ez du lehen bezala eragiten. Zer egin daiteke espazio alternatiboetan? Zer egin daiteke euskal nortasunaren aldeko mugimenduetan?

Kontrakulturaren mitoa egokitu behar da, estetika aldetik ez dauka hainbesteko gaitasunik alternatiba bat irudikatzen. Ez da apurtzailea, lehen lez, ile luzea edo belarritakoak eramatea. Probokazioek ez daukate hainbesteko gaitasun politikorik. Espazio horiek mantentzeko estetika eta musika zabaltea beharrezkoa bada, ez da hain larria. Baina, gogoeta egin behar da, ezin dena egin da mutur batetik bestera pasatu eta musika komertziala bakarrik ipini. Patxanga, reagetoia edota Pit-

bull gisako musikari erreakzionario bat sartzeko ez dugu arazorik, baina, oster, herriko Dj bat ekartzeko aurreiritziak ditugu. Hemengo rapagaz ere kostatu da.

Zure ustez, zergatik kostatu da beste estilo batzuk gehiago zabaltea?

RRVren itzalak tapoi moduan eragin du. Rap, elektronika, indie-popa... Adierazpen horiek egin dira, baina espazio kontrakulturaletan onartuak izateko arazoak eduki dituzte. Hori da bultzatu behar dena, musika komertziala beharrean. Hobe da Esne Beltzaren patxanga, kanpotik Pitbull ekarri baino.

‘Poliki biluzten eman dugu

gau osoa’ esaten du Berri Txarrak taldeak ‘Lemak, aingurak’ abestian.

Fase politiko berri honetan, aldi berean eztanda festibo bat egon da. Hezurak askatu eta dantzan ere hasi gara, gure eran bada ere (barrez).

Zelan ikusten duzu parranda giroa?

Hasiera batean, Interneti esker edozein musika entzun ahalko genuela eta aniztasuna zabalduko zela esaten zen, eta kontrako efektua gertatu da. Ia-ia leku guztietan, jende guztiak musika berbera entzuten du, komertziala. Londresen, Amsterdamen, Berlinen... beste estilo batzuk lantzen dituzte leku alternatiboetan.

Durangoko Azoka

TREN ZERBITZU BEREZIAK

euskotren

Anboto TABERNA JATETXEA

Goienkale kalea, 14
Durango
Tel.: 946 811 020

- EGUNEKO MENUAK - MENU BEREZIAK - KARTA -
- ERA GUZTIETAKO PINTXOAK - RAZIOAK -
Aurrekontuak kontsultatu konpromisorik gabe!



Film emanaldiak, tailerrak, mahai-inguruak eta aurkezpenak hartuko ditu, besteak beste, Zugaza zinemako Irudieneak.



Domekan, 19:00etan, emango dute Iratxe Mediavillaren 'Argi' filma. L.Elorriaga

Zinemazaleen elkargune izango da, seigarren urtez, Irudienea

Euskaltzaleen Topaguneak kudeatuko du aurten ere ikus-entzunezkoen gunea

> IRUDIENEA Itsaso Esteban Seigarren urtez, Euskaltzaleen Topaguneak kudeatzen duen Irudienea gune bilakatuko da Zugaza zinema. Ikus-entzunezkoak izango dira bertan protagonista. Film luze zein laburrak, fikzio-esperimentalak, dokumentalak zein haurrentzako filmak eskainiko dituzte, eta mahai-inguruak, solasaldiak eta tailerrak ere izango dituzte zinemazaleek aukeran. Irudienea ez

da zinema-areto soil bat izango, ikus-entzunezkoen arloko jakintza partekatzeko elkargune bat baizik. Ildo horretatik, marrazki bizidunak egiten ikasteko eta bikoizketan jarduteko tailerrak egin dituzte, esaterako, gaur. Azken urteetan bezala, Kameratoia lehiaketa ere hartuko du Irudieneak. Abenduaren 3tik 6ra bitartean, beraien ikus-entzunezkoak ekoizten ibiliko dira Euskal Herriko hainbat txokota-

'Jotamentala' lana aurkeztuko du Bideografik Durangoko ekoiztetxeak, bihar

tik etorritako sortzaileak Durangaldean zehar.

Euskal zinemagintzako aurtengo nobedadeak ikusteko aukera paregabea ere eskaintzen

du, gainera, Irudienea guneko programazioak. Gaur, 19:00etan, Patxo Telleriak zuzendu duen *Igelak* film luzearen estreinaldia hartuko du Zugaza zinemak, eta zuzendariak eta aktoreek parte hartuko dute filmaren aurkezpenan. Bestalde, urrian Elorrion estreinatuko zuten *Argi* film luzea ere ikusgai izango da Durangoko Azokan. Domekan izango da emanaldi hori, 19:00etan, eta Iratxe Mediavilla zuzendariak eta June Gomez aktoreak aurkeztuko dute filma. Iratxe Mediavilla elorriarrak bere herrian grabaturiko filma da *Argi*, aktore zerrandan Durangaldeko hainbat artista dituen, gainera.

Dokumentalen atalean ere hainbat nobedade izango da Irudienean. Jon Maiak zuzen-

duriko *Gutik zura* lana estreinatuko da bertan, abenduaren 6an, 11:00etan, eta baita Durangoko Bideografik ekoiztetxeak AIKO taldearen enkarguz osaturiko *Jotamentala* dokumentala ere. Bihar, 18:00etan aurkeztuko dute Eukeni Arriortua zuzendariak, Sabin Bikadik eta Patxi Labordetak *Jotamentala*.

Lan-taldean Durangaldeko hainbat aktore dauzkan *Errementari* filmaren aurkezpena ere hartuko du, Irudieneak. Eneko Sagardoy durangarra da film horren protagonista. Hain zuzen ere, Sagardoy da hizlarietako bat Irudienean egingo duten solasaldietan: euskarazko zinemaren sorkuntzaz eta kontsumoaz arituko da bihar, 15:00etan, Maria Elorza eta Amaia Garciagaz.

IRUDIENEAKO EGITARUA

ABENDUAK 2, BARIKUA

10:00 IKASLE EGUNA. Marrazki bizidunen tailerra EHU Arte Ederretako Fakultatea eta Zineuskadi. 3 saio

16:30 IKASLE EGUNA. Bikoizketa tailerra (helduentzat) Mixer eta Zineuskadi. Bi saio

19:00 Igelak (97') Filmaren aurkezpena eta estreinaldia Patxo Telleria, Gorka Otxoa, Miren Gaztañaga eta Gatibu taldeko kideekin. Sarrera: 6,5€

ABENDUAK 3

10:30 Kameratoia. Lehiaketaren aurkezpena

11:30 Mundu bat ahoz aho (60'). Dokumentalaren estreinaldia, Beñat Gaztelumendi zuzendariak aurkeztua.

13:00 Mugamiñak (55'). Xuban Intsaustiren dokumentala, Amets Arzallusek aurkeztua.

14:15 Aitxitxe (15'). Markel Goikoetxearen film laburra.

15:00 Euskarazko zinearen sorkuntza eta kontsumoa. Mahai-ingurua, Eneko Sagardoy, Maria Elorza eta Amaia Garciarekin.

16:30 Hitz gutxitan. TOSTA (11'26'). Uxue Arzeluzen dokumentala, Jasone Mendizabalek aurkeztua.

17:15 Auzokoak (35'). Iñaki Alforja eta Euskaltzaleen Topagunearen dokumentala, Ainara Santaquiteriak aurkeztua.

18:00 Jotamentala (50'). Eukeni Arriortuak zuzendutako dokumentala eta aurkezpena, Xabin Bikandi eta Patxi Labordarekin. **16:30**ean hasita, kalejira Landako Gunetik Irudieneara.

19:30 Sipo phantasma (67'). Filma, Koldo Almandozek aurkeztua.

ABENDUAK 4

11:00 Kimuak film laburren emanaldia **Beti bezaperako koplak (5'22'')**. Ageda Koplak Taldea **Gure hormek (15'13'')**. Maria Elorza eta Maider Fernandez **Hileta (19'50'')**. Kepa Sojo zuzendariaren aurkezpena **Ihesa (15'19'')** Alejandro Diaz.

12:30 Irrintziaren oihartzunak (54'). Dokumentalaren estreinaldia, Iratxe Fresneda zuzendariak, Saioa Etxeberriak eta Mirentxu Loyartek aurkeztua.

15:00 Neskatoak (68'). Dokumentalaren estreinaldia, Jon Abril zuzendariak aurkeztua.

16:00 Pixkanaka pixkanaka (45'). Haurrentzako filma (2-4 urte).

17:00 Kaxkagorri (19'). Dokumentalaren estreinaldia, Joxe Ramon Agirre zuzendariak aurkeztua.

17:30 Euskal zinemagintza Iparraldean. Mahai-ingurua, Ximun Carrère (Aldudarrak Bideo) eta Frank Suarezzen (EKE) eskutik.

18:00 Dans leur jeunesse il y a du passé (52'). Dokumentala, Elsa Oljar-Ines zuzendariak aurkeztua.

19:00 Argi (90'). Filma, Iratxe Mediavilla zuzendariak eta June Gomez aktoreak aurkeztua.

ABENDUAK 5

11:00 Mara Mara (41'). David Aguilarren film ertaina, Josune Gorostegik aurkeztua.

12:00 Errementari (30'). Film luzearen proiektuaren aurkezpena, Paul Urkijo, Gorka Lazkano eta Ortzi Acostaren eskutik.

13:00 Ikuska. Ezina ekinez egina. Dokumental saila. Berrargitalpena. Xabier Iriondok, Juanba Berasategik eta Gotzon Aranburuk aurkeztua.

Erreferenduma (11'13''). Antxon Ezeiza.

Erribera (10'22''). Montxo Armendariz.

Euskal Emakumeak (10'17''). Mirentxu Loyarte.

Euskal kanta berria (10'36''). Imanol Uribe.

Euskara galdutako Nafarroa (10'46''). Juanba Berasategi.

14:30 EUSPOT. Spot laburren emanaldia.

15:00 Marko Makako (80'). Jahn Rahbeken haurrentzako filma (4-8 urte).

16:30 Euskal balezaleen triskantza (77'). Eñaut Tolosak, Beñat Iturriozek eta Ander Arresek zuzendutako dokumentala, Beñat Iturriozek aurkeztua.

18:00 Maitia nun zira (23'). Elena Canasek eta Ainara Menoyok zuzendutako dokumentala, Ainara Menoyok aurkeztua.

19:00 Go!azen (120') Performance-a, 4. kapituluaren estreinaldia eta aktoreekin photocall eta sinadurak.

ABENDUAK 6

11:00 Gutik Zura (90'). Mari Jose Barriolak eta Jon Maiak zuzendutako dokumentala, Mari Jose Barriolak aurkeztua.

13:00 Akabuko martxea (61') eta Dominica (8'). Aitor Gisasola eta Fredi Paiaren dokumentala eta film laburra, Aitor Gisasolak aurkeztuta.

14:30 Pan (111'). Joe Wrighten haurrentzako filma (8-12 urte).

18:00 Kameratoia. Film laburren rallyaren sari banaketa eta emanaldia.

KURUTZIAGA IKASTOLA



Gure hezkuntza proiektuak ikaslea du ardatz.

Euskal Kultura eta Euskara ardatz hartuta,
munduko beste kulturei irekia den proiektua.

Emakumeen eta gizonen arteko benetako
berdintasun iraunkorra bultzatzen duena.

Eskola inklusiboaren aldekoa dena.

Gizarte justu eta iraunkorrago baten
aldeko egitasmoa duena.

KURUTZIAGA IKASTOLAREN ESKAINTZA

0 urtetik 16 urte bitarteko eskaintza osoa.

Kirol eta aisialdi eskaintza zabala.

Jantokia: Ikastolan bertan egindako
menua, bertoko baserritarrek ekoitzitako
produktuekin egindako janaria
eta janari ekologikoa.



Ezagutu gaitzazu!

www.kurutziagaikastola.eus





Eñaut Aiazaguena marrazkilaria, lurretan.

“Lagundu egiten didalako marrazten dut, irribarrea ateratzen didalako”

Eñaut Aiazaguena iurretarrak komiki tailerra eskainiko die gaur ikasleei, Saguganbara gunean

> KOMIKIA Markel Onaindia Durangoko Azoka sorkuntzarako eta ikasketarako gune ere bada. Saguganbaran, esate baterako, antzerkiagaz edota komikiagaz lotutako tailerrak landuko dituzte ikasleekin. Gaur komikiaren munduan murgilduko dira, Eñaut Aiazaguena

marrazkilaria iurretarraren eskutik.

Hiru ikastetxetako gazte-
txoek parte hartuko dute tailer-
rean, hogeitaz laguneko taldean.
Ordubeteko saioa izango da; ber-
raz, oinarritzko gai batzuk jor-
tuko dituzte, Aiazaguenaren
arabera. “Nire asmoa komikiak

“Nire asmoa komikiak edo narrazio grafikoak dituen tresnekin jolastea izango da”

edo narrazio grafikoak dituen tresnekin jolastea izango da, horrek erabiltzen ikastea”, esan du iurretarrak. Praktika egingo dute ikasleek. “Aldizkari ugari eramango ditut, eta collage moduan planteatuko dut tailerra”, dio Aiazaguenak. Marrazkilaria esan du komiki bat ona iza-

teko ez dela zertan polita izan; komikiaren tresna horiek ondo edo modu egokian erabiltzea da kontua.

Sekretu horiek kontatuko ditu, beraz, Aiazaguenak Saguganbaran.

‘Irribarrez’

Marrazkilaria senari bide eman zion Aiazaguenak Arte Eder-
rak ikasita, eta azken boladan komikigintzan murgilduta ibili da. www.irribarrez.info ataria dauka Interneten, eta bertan eskegitzen ditu lanak. Aurreko ikasturtean, egunero tirak argitaratzen ibili zen, eta lasaiago bada ere, oraindik ere badabil lanean. “Ahal dudan heinean, egunean tira bat-edo publikatzen jarraitzen dut sare sozialetan”, azaldu du.

Barrura begira

Argitaratu eta kanpora atera arren ere, argi du barrura begiratzeko modu bat dela, batez ere, bere lan hori. “Batez ere, lagundu egiten didalako marrazten dut, niri irribarrea ateratzen didalako. Irribarre hori zenbat eta jende gehiagokaz partekatu, bada, gero eta hobeto, baina niretzat egiten dut. Neu naiz nire zentsuratzailer eta muga bakarra”, aitortu du iurretako artista gazteak. Ez hori bakarrik, bere gustez, norbere burua izan ohi da kritikoa sarritan.

H28! komiki aldizkariak 100 orrialdeko urtekaria ekarriko du

Aiazaguena eta Iturriagaren lanak daude ikusgai hedabide satirikoan

> KOMIKIA M.O. Eñaut Aiazaguenak eta Unai Iturriaga durangarrak H28! aldizkari digitalean parte hartzen dute euren komiki lanak argitaratzen. Dagoeneko urte bi ditu hedabide berezi horrek, eta aurten publikatutako hainbat lan azokara ekarriko dituzte, urtekari formatuan. Aiazaguenak esan duenez,

urteko lan aukeratuen bilduma bat izango da, 100 orrialdekoa eta koloretan.

Aurten publikatutako hainbat lan azokara ekarriko dituzte

Verkami plataformaren bidez, *crowdfunding* sistemagaz lortu dute argitalpena finantzatzea. Beraz, diruz lagundu dutenek etxean jasoko dute urtekaria. Baina, azokako autoekoizleen gunean ere egongo da eskuragarri.

Aldizkari satirikoa da euren, eta www.h28.eus webgunean irakurri daiteke.



H28! aldizkaria digitalean azaroan Iturriagaren sortutako irudia.

Gu Interneten .EUS gara

Dagoeneko 6.000 enpresa, erakunde eta lagunek .EUS domeinua dugu

Eskatu zurea!

www.domeinuak.eus

gure domeinua

“Zuztarrak bertan eutsita eta adarrak mundura zabalik, gure hizkuntza eta kulturea garatzeko”

BATZ GROUP
Igorre
batz.eus

eus



**EKARRI ZURE
AURREIKUSPEN
PLANA
ETA HAREN
KOPURUAREN
%3,50eraino
EMANGO DIZUGU***

**BASKE
PENSIO
NES.**

BANAKAKO BGAEa

Banakako Aurreikuspen Plan hauetara egindako lekualdaketen %3,50eraino: Baskepensiones 15, Baskepensiones 30, Baskepensiones 60 edo Baskepensiones Banakako BGAEren Baskepensiones Burtza Globala. Lekualdatutako gutxieneko diru-kopurua 6.000 eurokoa da eta bertan gordeta edukitzeko konpromisoa 5 urterainokoa. Gehienez 6.000 euroko oparia Kutxabankek ordainduko du urtean behingo ordainketen bitartez Baskepensioneseko planaren titularraren kontu batean. Lehenengo ordainketa lekualdaketa jasotakoan egingo da. Pizgarri honek unean uneko indarreko zergak izango ditu. Gaur egun, atxikipenari lotutako kapital higigarriaren etekintzat jotzen da.

*** UTB: %0,70**

honako adibide honetarako: 6.000 euroko lekualdaketa, %3,50eko oparia bost urtetan ordaintzeko -urtean behin- hasierakoa lekualdaketa jasotakoan eta bertan 5 urtez gordeta edukitzeko konpromisoarekin. Kanpainaren azken eguna: 2016/12/31.



Guztira, arlo askotariko 52 artisautza postu batuko ditu Euskal Dendaren 21. aldiak Durangoko merkatu plazan.

Euskal Herriko artisautza nazioartera zabaltzera dei egiten du Euskal Dendaren aurtengo kartelak

Aurrera begirako estrategien artean, kanpoko merkatuetara hedatzeko erronkari heldu gura dio Arbaso elkarteak

> EUSKAL DENDA J. Derteano Euskal Denda iragartzeko aurtengo kartelean honako leloa irakurri daiteke: ‘Jalgi hadi mundura...’. Nazioartea merkatu eta erakusleho handi bat da, eta euskal artisauak hori esploratzeko pausoak eman behar dituztela uste dute Arbaso elkarteak antolatzaileek. “Artisautzak ez du nazioartekotzeko joerarik. Etxe inguruan jokatzeko gustatzen zaigu, baina, futbolekin lez, kanpoan ere jokatu beharra dago”, adierazi du Bernat Vidal Arbaso elkarteak presidentek Euskal Denda aurkezteko prentsaurrekoan.

Nazioartekotzea erronka nagusietako bat dutela adierazi dute. Hain zuzen, Arbasoko sei kidek Washington-eko (AEB) Smithsonian Jaialdian parte hartu zuten ekainean. Ikustera eta ikastera joan ziren. “Oso ondo hartu gintuzten, eta egiten dugunarekiko interesa erakutsi ziguten”, gogoratu du Vidalek. Horregatik, “ausartak” izan behar dutela uste dute.

Bide horretan, erakundeekin elkarlanean aritzearen garrantzia azpimarratu du. “Gure herria ohiko markotik ateratzeko egiten dituzten apustuak erakundeekin jarraitzeko prest eta gertu egon behar dugu”,

adierazi du. Elkarlan horren lehen mugarrria Euskal Herriko artisau denak interneteko gune berean batuko dituen mapa da. Dena bere bidetik badoa, Bilboko udaberriko azokan aurkeztu gura dute.

Postuen %34 berriak

Euskal Denda artisautza sektorearen erakustokirik handiena bihurtuko da abenduaren 2tik 6ra. Durangoko Merkatu Plazan jarriko dituzten 52 postuetatik 17 berriak izango dira. Beraz, postuen %34 berriak dituzte aurtengo aldian.

Azpimarratzekoa da Bizkaitik postu kopurua: 24. Sei Durangaldekoak izango dira, eta horietako bat lehenengoz etorriko da: Amabitxiak Elorrioko bitxi-denda, Amagoia Salazarrena. Honako hauek dira gainerako bostak: paperezko bitxigintza Elorrioko Anitha Molen eskutik, Rosa Etxabe zeramika eta grabatzaile, Restaurarte eraberritzeak, Bea Unzueta zuntz begetala eta Eneko Unzueta bitxigilea.

Bizkaitik beste zortzi artisau berri etorriko dira. Gipuzkoako lau artisauak, Arabako bik eta Nafarroako eta Nafarroa Beherako banak ere lehenengo bider jarriko dute postua Euskal Dendan.

23.000

lazko Euskal Dendaren bisitari kopurua da. Aurten hori gainditzea espero dute

Artisautzaren azoka nagusiak 23.000 bisitari izan zituen iaz, eta marka hori gainditzea gura dute.

Garagardo ekoizleak

Euskal Dendaren helburua ekoizleak bertatik bertara eza-gutzeko aukera eskaintzeaz gainera, antzinako lanbideak eza-gutaraztea ere bada. Horregatik, urtero erakusketa eta erakustaldi bereziak antolatzen dituzte sarrreran. Aurten Euskal Herriko garagardo ekoizleen erakusketa antolatuko dute Euskal Garagardo Elkarteagaz batera.

Lehenengo erakustaldi honetan lau marka etorriko dira: Mungiako Boga, Oiartzuneko Pagoa, Sondikako Txorierri

Elorrioko Amabitxiak bitxi denda lehenengoz etorriko da

Garagardoak eta Zamudioko UrbanBeer. Euren ekoizpena erakutsi eta azalpenak emango dituzte. Garagardo dastaketetan parte hartzeko aukera ere egongo da.

Euskal Dendan tradizioa duten bestelako ekimenak ere ez dira faltako. ‘Artisau despistatua’ lehiaketa da horietako bat. Artisau batek bere ofizioari ez dagokion gauzakiren bat izango du bere postuan, eta bisitariak hori aurkitu beharko du. Urtero legez, bisitariak posturik onena zein den aukeratu dezakete.

Artetsu sariak

Artetsu sariak euskal artisautzaren garapenean zein zabal-kundean lagundu duten norbanako edo entitateak saritzen dituzte urtero-urtero. Aurtengo ekitaldia abenduaren 2an, 20:00etan, egingo dute San Agustín kultur gunean.

Bizitza osoari eskainitako saria da denetan bereziena, eta Maria Jesus Cortabitartek eta Jose Luis Arrietak Zornotzan duten Jaialdi tailerrari emango diote. Euskara eta tradizioa sustatzen egindako lanagatik Etxepare Euskal Institutua ere sarituko dute. Erakunde eta hedabideen ataletako sariak Iurretako Udalarentzat eta DOTB

Durangaldeko Telebistarentzat izango dira. Bogodoritsie abesbatza ere omenduko dute bere 20. urteurrenean.

ORDUTEGIA

Irekita: Abenduaren 2tik 6ra.
Goizetan: 11:00etatik 14:30era.
Arratsaldeetan: 16:30-21:00 (Abenduak 6: 16:30-20:00)

SALTOKIAK

Bizkaitik: 24
- Durangaldek: 6
Gipuzkoatik: 14
Nafarroatik: 7
Arabatik: 5
Lapurditik: 1
Nafarroa Beheratik: 1

SEKTOREKA

Bitxigintza: 9
Zeramika: 8
Ehungintza: 7
Nekazaritza elikagaiak: 6
Zura: 6
Larrua: 3
Beira, Kosmetika, Papera: 2
Forja, otzaragintza, artea, euskal kirola: 7

- Artetsu saria:

Abenduaren 2an, 20:00etan, San Agustín Kultur Gunean

Maria Jesus Cortabitarte Maguregui | Euskal jantzi tradizionalen diseinatzailea | 1953, Gizaburuaga

“Euskal jantzi tradizional bat daramanak aitita eta amona daramatza soinean”

Zornotzako Jaialdi tailerra sortu zutenek ibilbide osoari eskainitako Artetsu saria jasoko dute



> ARTETSU J.Derteano
Zornotzako Jaialdi tailerrak euskal jantzi tradizionalak egiten ditu. Maria Jesus Cortabitartek eta Jose Luis Arrieta senarrak sortu zuten orain 16 urte. Jantzien esentziari eta nortasunari eutsita, gaur egungo eskariari erantzuten diote. Beren ibilbide oparoagatik Artetsu saria jasoko dute gaur, 20:00etan, San Agustin Kulturgunean.

Zorionak, Maria Luisa. Sorpre-saz harrapatu zaitu?
Bueno, nork jakin ba? Pozez hartu dut. Zeozer erein duguna-

ren seinale da. Egindako ibilbide baten ondorioa. Modu horretan hartzen dut. Jaialdin lanean gabiltzanoei eta ibili direnei esker lortu dugu.

Zeintzuk dira euskal jantzi tradizionalak? Eta zeintzuk egiten dituzue?

Guk denetarik egiten dugu. Elizara joatekoak, ezkontzetara eramatekoak, erromeriakoak...

Denak jantzi tradizionalak, baina denak desberdinak.

Bai, baina normalean jendeak ez ditu behar moduan apreziazten. Adibidez, behin domeketa-

ko jantzia egin nion bati, eta bere kabuz astegunetakoa ere erosi zuen, badakizu, kanpotik datozen horietakoak. Eta ez zuen bereizten domekan jarri beharrekoa zein zen. Badakizu zergatik den hori? Jende askok ez dakielako lehengoak zelan jantzen ziren.

Ezagutza falta sumatzen duzu?

Kaletik jantzi tradizionalekin ikusi eta sarritan galdetzen diot neure buruari: Zelan ibili litezke horrela? Edozelako erropekin eta edozelan jantzita. Horrek min ematen dit. Esaterako,

“

Saria zerbait erein dugunaren seinale da; modu horretara hartzen dut”

“

Jantziekin badago sormena, baina beti ere muga batzuk zainduta”

umeak mototsagaz eta amak bape barik. Sasoi bateko umeek sekula ez zuten mototsik erabiltzen, albo batean lazotxoak bakarrik. Eta nagusiak, berriz, ulea batuta joaten ziren, eta ez oraingo moduan, solte eta modu horretara. Mototsa gura ez duenak, ilea atzean batu dezake. Antzinakoek arropa zaharrak jantziko zituzten, baina beti garbi eta bere lekuan! Pertsonaren araberakoa da. Beste batzuk ederto joaten dira.

Beraz, ez da arropa eramatea bakarrik, konjunto osari errepartzeko diozu.

Bai. Lehengo batean, dantzari eta soinu-jole batzuk etorri zitzaizkidan. Holan edo halan joan, berdin zitzaizela esan zidaten. Nik erantzun nien ez zirela eurentzat bakarrik jantzen, baita begira dagoenarentzat ere. Jantzi ez ezik erakutsi egin behar zutela. Jantzi tradizional bat daramanak bere amona eta aitita daramatza soinean. Horrela ikusten dut.

Kolore askotako jantziak ikusten ditut. Batez ere jantzi beltzak zirela uste nuen.

Lehen, senitarteko bat hiltzen zenean, doluzko jantzitan joaten ziren. Baina orduan ere erabiltzen ziren koloretako jantziak. Amonaren zuri-beltzezko ar-gazki bat dut, eta badakit hango arropa koloretakoa zela.

Nork erosten ditu euskal jantzi tradizionalak? Nortzuk dira bezeroak?

Ezkontzera doazen batzuk, dantza taldeak... esaterako, Abadiñoiko dantza talde bateko gaztetxo batzuentzat jantziak egin nituen, eta pozez zorutzen daude. Kapritxo erosten dutenak ere badaude. Batek 60 urte egin eta jubilatuta egin behar dela-eta, jantzi bat egiteko enkargua eman dit. Zelakoa gura duen galdetuta, “berdin dit” erantzun zidan. Gure poza! Gura genuena egiteko askatasuna geneukan.

Diseinatzerako orduan, zer puntutaraino eusten diozu esentziari eta zer puntutaraino ematen diozu zure ukitua?

Ukitua derrigor eraman behar du. Esaterako, mahukak ezin dira lehengo erara jarri. Tiratu egiten dutela-eta, kexaka hasiko lirakeke. Hortik aurrera, sormena beti dago, baina muga batzuk zainduta. Bestela, ez litzateke euskal jantzi tradizionala izango. Kaikuekin —jantzi mota bat— sarritan gertatzen zait. Hau kendu eta bestea gehitzeko esaten didate. Ezetz erantzuten diet, aldatu gura badute jostunarengana eramateko. Gauza batzuk ezin ditut egin. Jantzi horri burla egiten nabilela sentituko nuke.

Jantzien inguruan lan berezirik sortu zaizu?

ETBk reality bat egin zuen antzinako bizimoduaren inguruan, eta parte-hartzaileak jantzerat joan nintzen Axpeko —Atxondo— Mendigoikoara. Banan-banan jantzi nituen denak.

GURE ARTISAUTZAREKIN DUGUN ZITA!

- Erakustaldiak. Umeentzako tailerrak
- Erosketa-baleak zozketatuko ditugu, 2.000 euro guztira.
- Sorpresa asko izan ditzakezu.

Abenduak
2016 / 2 - 6
Durango Azoka Plazan

Ordutegia: 11:00 - 14:30 / 16:30 - 21:00



Laguntzaileak

anboto

komunikabideak



21. EUSKAL DENDA

Euskal Herriko Artisanaren Asanblada - Ferri - Sochur - Sochur Bait - Ferri del Sochur Artisanen Asanblada

Jalgi Aadi mundura!!

www.euskaldenda.info

facebook.com/arbaso

AHOTSENEAKO EGITARAUA

ABENDUAK 2, BARIKUA

ZUZENEKOAK

- 11:00 Lorratzak.** Oinutsik diskoa aurkezten.
- 11:40 Bostenbor.** Bostenbor II diskoa aurkezten.
- 12:20 Tristtan Mourguy.** dUAL [1/2] : Gordeka diskoa aurkezten.
- 13:00 Xatiro.** Xatirokeriak diskoa aurkezten.
- 13:40 Gatibu.** Asko maitte, aske bizi diskoa aurkezten.
- 14:20 Kohatu.** Kohatu diskoa aurkezten.
- 15:00 D-Rais.** Desagerpen baten egunerokoa diskoa aurkezten.
- 15:40 Sarkor.** Sarkor diskoa aurkezten.
- 16:20 Dama.** Hil baino lehen diskoa aurkezten.
- 17:00 Montauk.** Bilaketan diskoa aurkezten.
- 17:40 Fumut.** Fumut diskoa aurkezten.
- 18:20 Hi Exekutibo.** Sos diskoa aurkezten.
- 19:00 Revolta Permanent.** Kimera diskoa aurkezten.
- 19:40 Baobabs Will Destroy Your Planet.** Baobabs Will Destroy Your Planet diskoa aurkezten.

SOLASALDIK

- 11:00 IKASLE EGUNA.** Aurkezpena.
- 11:30 IKASLE EGUNA.** Literatura tailerra Fernando Morillo Izar Malkoak.
- 12:00 IKASLE EGUNA.** Inun. Musika tailerra.
- 12:30 Urt Zubiaurre.** Izenik gabeko lurak liburua.
- 13:00 Hainbat egile.** Gogoratzen nauzenetan. Ipuin ilustratuen bilduma. Aurkezpen musikatu.
- 13:30 Hainbat egile.** Entzun #66-Aho bete doinu 2.
- 17:00 IKASLE EGUNA.** Hip Hop tailerra (helduentzat). Endika Albellen eskutik.
- 18:00 Jose Inazio Basterrexa.** Begoñaren itzalpean.
- 18:30 Irati Jimenez.** Odola, Gatza, Musua.
- 19:00 Saioa Iraola Urkiola.** Izena eta izana ezbaian.

ABENDUAK 3, ZAPATUA

ZUZENEKOAK

- 11:00 Elortegi Anayak.** Elortegi diskoa aurkezten.
- 11:40 Gatz.** Ez dut nahi diskoa aurkezten.
- 12:20 Belarminak.** Haztearen izerdia diskoa aurkezten.
- 13:00 Inun.** Da Nola diskoa aurkezten.
- 13:40 Keu Agirretxea.** Nomadak eta kofrea diskoa aurkezten.
- 14:20 Egarrri.** Taupada diskoa aurkezten.

- 15:00 Starblues.** Gu geu diskoa aurkezten.
- 15:40 Otxalde.** Ama Lur begira diskoa aurkezten.
- 16:20 Erraiak.** Erraiak diskoa aurkezten.
- 17:00 Arramazka.** 2009-2016 bilduma diskoa aurkezten.
- 17:40 Joseba B. Lenoir.** Eguzkiari begietara so diskoa aurkezten.
- 18:20 Eraso.** Kaiolatik ihes diskoa aurkezten.
- 19:00 Izeberg.** Lurrik ez begi bistan diskoa aurkezten.
- 19:40 Kokein.** Lurpekharia diskoa aurkezten.

SOLASALDIK

- 11:00 Juan Gorostidi.** Zazpigarren Heriotza.
- 11:30 Ander Odriozola.** Freeport.
- 12:00 Arantxa Urretabizkaia.** Bidean Ikasia.
- 12:30 Antton Olariaga, Harkaitz Cano, Jexuxmai Lopetegi.** Itzal zaunka.
- 13:00 Eric Dicharry.** Errudun. Solasaldia-errezitaldia.
- 13:30 Erroak.** Aurkezpen-solasaldia.
• Txarli eta Joselu, Amultsuki
• Hainbat egile, Qissat, Palestinako emakumeen ipuinak
• Kurkuluxetan Neguko haur kantak.
- 16:30 Jakoba Errekondo, Asisko, Unai Iturriaga, "Mattin", Ainara Azpiazu, Antton Olariaga, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi eta Joseba Larretxe.** Bizi Baratzea, Altza Porru. Aurkezpen performancea.

- 17:00 Xabier Etxaniz Rojo.** Waterloo-n galdutakoak.
- 17:30 Amaiur Blasco.** Egunsentia. Aurkezpen-errezitaldia.
- 18:00 Eneko Aizpurua.** Lehertu da festa.
- 18:30 Miren Gorrotxategi.** 33 ezkil.
- 19:00 Edu Zelaieta eta Eneko Ugarte.** Ispilu biluziak. Errezitaldia.

ABENDUAK 4, DOMEKA

ZUZENEKOAK

- 11:00 Herri Oihua.** Sustrairik dagoen bitartean diskoa aurkezten.
- 11:40 Guda Dantza.** Labarraren ertzean diskoa aurkezten.
- 12:20 Iratxe Mugire.** La piel transparente diskoa aurkezten.
- 13:00 Xabaltx.** Zuzeneko.
- 13:40 Beira.** Margotu berria diskoa aurkezten.
- 14:20 Oskarbi.** Mendira naiz diskoa aurkezten.
- 15:00 Ero.** Garaiz gaude diskoa aurkezten.
- 15:40 Labrit.** Zortzi diskoa aurkezten.
- 16:20 Begiz Begi.** Hatsa diskoa aurkezten.

- 17:00 Bidaia.** Hitz diskoa aurkezten.
- 17:40 Siroka.** Ura diskoa aurkezten.
- 18:20 Hibakusha.** Oihu isilak diskoa aurkezten.
- 19:00 Altxatu.** Hegalen indarrak aitzina diskoa aurkezten.
- 19:40 Big Boy.** Zapasalto diskoa aurkezten.

SOLASALDIK

- 11:00 Peru Magdalena.** Argia.
- 11:30 Beñat Krolem, Jone Uria eta Jon Martin.** Oholtza. Emanaldia.
- 12:00 Aitziber Etxeberria.** Nomada.
- 12:30 Harkaitz Cano eta Lorea Martinez Oronoz.** Zer demontre dago aulkien azpian.
- 13:00 Kirmen Uribe.** Elkarrekin esnatzeko ordua.
- 13:30 Antton Kazabon eta Jon Zabaleta.** Ilunpetik argira.
- 16:30 Jon Eskisabel.** Bide Ertzean: zutaz kantatzeko.
- 17:00 Jon Arretxe.** Satorketan.
- 17:30 Neighbor.** Hau. Solasaldi musikatu.
- 18:00 Joseba Lozano.** Inoren lurraldea.
- 18:30 Asier Serrano.** Linbotarrak eta Ate osteko itzalak.
- 19:00 Unai Ormaetxea.** Bille. Errezitaldi-kantaldia.

ABENDUAK 5, ASTELEHENA

ZUZENEKOAK

- 11:00 Zazkel.** Zazkel diskoa aurkezten.
- 11:40 Txilly.** Irteera diskoa aurkezten.
- 12:20 Huntza.** Ertzetatik diskoa aurkezten.
- 13:00 Magnetico Grupo Robot.**
- 13:40 Xabier Etxaniz eta Itsaso Elizagoien.** Geure kolkotik 2016 diskoa aurkezten.
- 14:20 Rukula.** Rukula diskoa aurkezten.
- 15:00 Estu & Larri.** Erol diskoa aurkezten.
- 15:40 Hiloz.** Giza ankerkeria diskoa aurkezten.
- 16:20 BiHozkada.** Bi Hozkada diskoa aurkezten.
- 17:00 Liher.** Hauts diskoa aurkezten.
- 17:40 Egurra ta kitto.** Gure ordua diskoa aurkezten.
- 18:20 Physis versus nomos.** Saudade é fatal 2 diskoa aurkezten.
- 19:00 Zeinke.** Sormena, kemena diskoa aurkezten.
- 19:40 Gorka Suaia eta Kimo Soundz.** Piztu! Mixtape diskoa aurkezten.

SOLASALDIK

- 11:00 Oier Guillan.** Mr Señora.
- 11:30 Karlos del Olmo eta Dejabu.** Arestiren nazioa, antzerkia eta Arrastoak. Solasaldia egileekin.
- 12:00 Nagore Legarreta.** Hysteron.

- 12:30 Patxi Larrion.** Feriatzaileak.
- 13:00 Alan Griffin.** Halfway to Hell - Albokarako 333 doinu.
- 13:30 Alaine Agirre.** Hegats aldizkaria.
- 16:30 Ataramiñe.** Ataramiñe 2016.
- 17:00 Ane Labaka, Malen Amenabar, Nerea Elustondo eta Oihana Bartra.** Testurak. Emanaldia.
- 17:30 Inoren Ero Ni.** lennei.
- 18:00 Xabier Paya eta Joxan Goikoetxea.** Xabier Leteren "Gabon, Txirrita".
- 18:30 Mikel Etxaburu.** Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak.
- 19:00 Iñaki Martiarena 'Mattin'.** Zarrakamalda. Solasaldi performancea.

ABENDUAK 6, MARTITZENA

ZUZENEKOAK

- 11:00 Garilak 26.** Adrenalinarean zain diskoa aurkezten.
- 11:40 Bolbora.** Munduari bira diskoa aurkezten.
- 12:20 Humus.** Adorez diskoa aurkezten.
- 13:00 Occhi di Farfalla.** Lerroetatik ihes diskoa aurkezten.
- 13:40 Solte.** Ixa diskoa aurkezten.
- 14:20 Deiedra.** Ehorzlearen kantuak diskoa aurkezten.
- 15:00 Koban.** Zuzeneko.
- 15:40 Pecozza United.** Eszeptizismoaren poltronak diskoa aurkezten.
- 16:20 Lauroba.** IV diskoa aurkezten.
- 17:00 Perlak.** Itzaletatik diskoa aurkezten.
- 17:40 Izaro.** Om diskoa aurkezten.
- 18:20 Errime.** Errime diskoa aurkezten.
- 19:00 Passepartout.** Passepartout diskoa aurkezten.
- 19:40 Etxe.** BiZi diskoa aurkezten.

SOLASALDIK

- 11:00 Gaizka Sarasola.** Erleak, satorrak, beleak.
- 11:30 Mikel Hernandez Abaitua.** Airearen isla.
- 12:00 Mariasun Landa.** Azken balada.
- 12:30 Saioa Olmo.** Eromekanika. Irakurraldia.
- 13:00 Zuriñe Rodriguez eta Oihana Etxebarrieta.** Borroka armatua eta kartzelak.
- 13:30 Txuma Murugarren.** Zerbait ari da gertatzen hor. Solasaldi musikatu.
- 16:30 Joxe Austin Arrieta.** Estalien gradora. Solasaldi-errezitaldia.
- 17:00 Pier Paul Berzaitz.** Egunsentiaren kantak.
- 17:30 Makulu Ken.** Makulu Ken diskoaren aurkezpena eta solasaldia.
- 18:00 Emanaldia.** Alde erantzira nabil.



Beristain
NEKAZAL TRESNAK

Nekazal, baseri, baso,
lorazaintza edota eraikuntzarako
tresnen salmenta, konponketa
eta mantenua.

OIDOR BERRIOZABALBEITIA, 14 48230 ELORRIO BIZKAIA

☎ 946 231 803 ✉ info@beristain.eus

www.beristain.eus



70 musika emanaldi eta 50 solasaldi hartuko ditu aurten Ahotsenea guneak

Azokako egunetan goiz eta arratsalde izango dira Ahotsenean kontzertuak eta liburu aurkezpenak

> ZUZENEKOAK Itsaso Esteban Idazleak ordu erdiz beraien liburuez jarduten entzuteko zein musika taldeen zuzenekoak gozatzeko aukera eskainiko du Durangoko Azokako Ahotsenea guneak, bederatzigarren urtez. Aurten 120 aurkezpen programatu dituzte Landako Erakustazoka alboko parkean atonduko dituzten bi karpetan: 70 musikari edo musika talderen emanaldiak izango dira Zuzenekoan karpetan, eta 50 sortzailek baino gehiagok aurkeztuko dituzte beraien lanak Solasaldien gunean.

Gaurtik abenduaren 6ra arte, goiz eta arratsalde egongo da zer entzun eta zer ikusi Ahotsenea gunean. 11:00etan zabalduko dituzte Zuzenekoan zein Solasaldien karpak ateak, eta iluntzera arte etenik barik jardungo dira

sortzaileak oholztan. Solasaldien guneak azken emanaldia 19:00etan hasiko da, eta 19:40ean Zuzenekoan guneakoa.

Ohi bezala, askotariko formatuetan arituko dira sortzaileak: solasaldi eran, mahai-inguruan, errezitaldi gisa, ikuskizun baten bidez, akustikoan...

Parte hartzeko gogoia

Ibilbide luzeko sortzaileek zein hasiberriek osatzen dute, aurten ere, Ahotsenea guneak programazioa. Guztiek dute beraien lana erakusteko aukera Durangoko Azokako oholztan horretan. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, nabaria da sortzaileek Ahotsenean parte hartzeko daukaten gogoia.

Horrela, 51. Durangoko Azoka honetako Ahotseneako ohol-



Landako Erakustazokaren aldameneko parkean atonduko dituzte Ahotseneako bi karpak.

11:00etan zabalduko dituzte Zuzenekoan zein Solasaldien karpak

tzan Gatibu edo Kokein eskarmentu handiko taldeak zein Kohatu talde berriztar gaztea arituko dira, besteak beste. Berdin solasaldien gunean ere: ordu erdiz beraien lanez jardungo dira idazle ezagunak zein ezezagunagoak.

Zuberoak, Nafarroa Beherak eta Lapurdik betidanik izan dute tokia Durangoko Azokan, baina Gerediaga Elkartek nabarmendu duenez, aurten are aberatsagoa izango da Iparraldeko proposamenen kopurua. Izan ere, hamar urte betetzen dira Gerediagak eta Euskal Kultur Erakundeak elkarlanerako hitzarmena sinatu zutela.

Urteurren hori ospatzeko, Iparraldeko sortzaileen 30 ekitalditik gora izango dira Durangoko Azokan, teknologiari,

zinemari, zabalkundeari, literaturari, musikari zein arte eszenikoei lotuta. Ahotseneako programazioan ere antzemango da Iparraldeko sortzaileen presentzia nabarmena. Zuzenekoan, Tristtan Mourguy, Xabaltx, Otxalde, Arramazka, Bidaia, Begiz Begi eta Pier Paul Berzaitz musikariak arituko dira, esaterako. Solasaldien gunean, berriz, besteak beste, Erich Dicharry edo Amañur Blasco entzun ahalko dira beraien literatur lanen inguruan.



Tailer bat eskaini du 'Inun' zornotzarrak gaur, eta zuzenean arituko da bihar.

Durangaldeko hainbat sortzailek ere parte hartuko dute Ahotsenean

Izaro mallabitarrak eta 'Etxe' berriztarrak abenduaren 6an joko dute

Durangaldeko hainbat idazle eta musikaririk ere aurkeztuko dituzte beraien lanak Ahotsenean. Hain zuzen ere, Durangaldeko musikari batek gidaturiko musika tailer batek hasi da, gaur, Ahotseneako programazioa: ikastetxeetatik joandako gazteei zuzenduriko saioa gidatu du Mikel Inunziaga *Inun* zornotzarrak. *Da Nola* bere bigarren diskoa bihar aurkeztuko du zornotzarrak, 13:00etan, Zuzenekoan gunean.

Bihar, Jakoba Errekondok idatzirik *Bizi Baratzea* liburuan oinarrituriko *Altza Porru* komikiaren aurkezpena egingo dute Unai Iturriaga durangarrrak eta komikiaren beste egileek. Performance bat eskainiko dute, 16:30ean, Ahotsenean.

Abenduaren 4an, 11:00etan, maiatzean kaleratutako *Argia* poema liburuaren inguruan jardungo da Peru Magdalena durangarra —bere bigarren poema liburu da *Argia*—. Do-

mekan baita, *Bille* liburuak aurkezteko errezitaldia eskainiko du Unai Ormaetxea zornotzarrak, Solasaldien gunean.

Azkenik, irailean disko bana plazaratu duten Durangaldeko bi musikari arituko dira abenduaren 6an, Ahotsenean. *Om* lehenengo diskoko kantak eskainiko ditu, 17:40an, Izaro mallabitarrak, eta Ahotseneako aurtengo azken emanaldian, 19:40an, *BiZi* diskoa aurkeztuko du *Etxe* berriztarrak.



Areto handi eta argitsuak, argi naturalekoak
Menu gozo-gozoak, neurrira egindakoak
Aparkalekua, zuzeneko sarbidearekin

Bella

DURANGO

by Martin Perastegui

Gasteiz bidea, 2 - 48200 DURANGO

Tel.: 946 217 580

www.restaurantebema.com

Duten talentua igoko dute oholtzara sortzaile gazteek

‘Talentue plazara!’ antolatu du Berbaro elkarteak abenduaren 5erako

> SAGUGANBARA A. Basauri
Ume eta gaztetxoak dira protagonista Saguganbaran. Magiaz eta irudimenez betetako txokoa dute hori etxeko txikienek, eta han aurkituko duten guztia jasotzeko prest izaten dira. Hala ere, aurten, protagonista aktibo izateko aukera emango die Saguganbarak. Oholtza gainera igotzeko aukera. Horretarako jaio da *Talentue plazara!*. Hartara, haur eta gazteek euren talentua plazaratzeko aukera izango dute, abenduaren 5ean, Berbaro elkarteak antolatuta.

Zenbait diziplinan, euskaraz aritzen diren haur eta gazteen erakusleioa izango da Saguganbara, astelehenean, 15:00etatik 19:00etara. Durangaldeko sortzaile gazteak igoko dira, oraingo honetan, oholtzara: Durangoko Kristikin dantza taldeko umeen talde bat, Abadiño-ko Marisorgin taldea, Durangoko Kurutziaga Ikastolako antzerki taldea eta Gureak taldeko

Euskal kulturaren transmisiorako, hizkuntzagaz jolasteko gunea d

Haur eta gazteek euren talentua plazaratzeko aukera izango dute


umeak gonbidatu dituzte. Epe luzerako proiektu moduan jaio da *Talentue plazara!*, Berbaroko ordezkari Itsaso Gangoitiaren berbetan. “Izan ere, kezka batetik sortutako ekimena da. Saguganbarako protagonista dira haur eta gazteak, bai, baina era pasiboan. Eskaintza jaso egiten dute. Ez dira oholtzara igotzen. Hori aldatu gura dugu”, argitu du. Aurten Durangaldeko gazteek erakutsiko dute euren ta-

lentu, baina ez dute baztertzen Euskal Herrira zabaltzea.

‘Tupperstoy’s’ saioa

Ez da hori Saguganbarak dakarren berrikuntza bakarra. Guraso eta hezitzaileek jostailu eta jolasei buruz dituzten zalantzak argitzeko tarte izango dute aurten antolatu duten ‘Tupperstoy’s’ saioan. Abenduaren 3an izango da. “Hezkidetzan lan egiteko tresna ezinbestekoa dira jolasak, eta hori nola zaindu ezagutzeko aukera ere bada”, gogoratu du Gangoitiak.

Urtero moduan, ipuin kontalariek eta askotariko tailerrek osatuko dute Saguganbararen eskaintza. Euskal kulturaren transmisiorako eta hizkuntzagaz jolas egiteko gunea honek guraso eta haurren elkarrekiko transmisioan egin gura du lana. Era berean, Berbarok “kulturaren plaza den Azokan, umeek ere badutela zer esana” aldarrikatu gura du.



Ume eta helduek irakurketaz gozatzeko aukera dute. Durangoko Azoka



Ipuin kontalariek eta askotariko tailerrek osatzen dute eskaintza. Durangoko Azoka

SAGUGANBARAKO EGITARAUA

ABENDUAK 2, BARIKUA

ARETO HANDIA

10:30 IKASLE EGUNA. Zirrikitutik Antzerki tailerra. Hiru saio ikasleentzat, Maite Lopezekin (Karrika).

15:00 Sar dadila kalabazan! Ikuskizuna. Berbaro Elkarteak.

17:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Ikuskizuna. Familia osoarentzat.

ARETO TXIKIA

10:30 IKASLE EGUNA. Barrenetik. Komiki tailerra. Hiru saio ikasleentzat, Eñaut Aiartzaguenaren eskutik.

ABENDUAK 3, ZAPATUA

ARETO HANDIA

10:30 Mozoloaren bidea. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. Dobera Euskara Elkarteak.

11:30 Xomorropoemak eta piztipoemak. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. Maite Mutuberria eta Leire Bilbao.

12:30 Kulun-kuttunak. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. Yolanda Arrieta eta Aitziber Alonso.

13:30 Udazkeneko jolasak. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. Antton Kazabon eta Jokin Mitxelena.

16:00 Arbi liburu interaktiboak. Aurkezpena. Familia osoarentzat. Iker Burguera.

17:00 Zerua gris dago. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. Liebana Goñi eta Isaak Martinez (Pamiela).

18:00 Apaxi mendian. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. Gorka Olazabal.

ARETO TXIKIA

11:00 Tuppertoys saioa. Tailerra. 2-5 urte. Itsaso Pagoaga.

16:30 Musika eta plastika tailerra. 6-12 urte. Igela Manuela kultur elkarteak.

18:00 Musika tailerra. 4-5 urte. Igela Manuela kultur elkarteak.

ABENDUAK 4, DOMEKA

ARETO HANDIA

11:00 Korrika jokoa. 4-6 urte. Pirritx, Porrotx eta Marimotots.

12:00 Urrezko giltza. Ipuin kontaketa eta aurkezpena. Familia osoarentzat. Patxi Zubizarreta, Jokin Mitxelena eta Joserra Senperena.

13:00 Jo kako jo! Ikuskizuna. Familia osoarentzat Josiane Aguerre eta Phillip Albor.

15:00 Ilargi arrantza. Txotxongilo ikuskizuna. Familia osoarentzat. Banakike txotxongilo taldea, Karaban'art artista kolektiboa.

18:00 Ispilutxo. Ipuin kontaketa. 5-10 urte. Pello Añorga eta Jokin Mitxelena.

19:00 Panpinak Aitorrentzat. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. Maite Franko.

ARETO TXIKIA

11:00 Liburu baby kluba. Tailerra. 0-3 urte. Mestiza Elkarteak.

12:00 Liburu bat mundu bat. Tailerra. 4-6 urte. Mestiza Elkarteak.

16:00 Haur literatura, hizkuntza lantzeko tresna. Aines Dufau.

17:00 Jolas hezitzaileak. Tailerra. 3-10 urte. Elkar.

ABENDUAK 5, ASTELEHENA

ARETO HANDIA

11:00 Kontxako ume galduak. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. Seve Calleja.

13:00 Zestoako lorua. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. Iñaki Zubeldia.

15:00 Talentue plazara! Ekintza multidiziplinarra familia osoarentzat.

ARETO TXIKIA

10:30 Ipuinen irakurketa ozena LH. Ipuin kontaketa. 5-8 urte. Bilboko UE irakasleak (EHU/UPV).

16:00 Kako-makotan. Tailerra. Familia osoarentzat. Berbaro Elkarteak.

ABENDUAK 6, ASTEARTEA

ARETO HANDIA

10:30 Banilo. Eider Eibarren zuzeneko marrazketa. Familia osoarentzat.

11:30 Kutzaka. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. Lanku Bertso zerbitzuak.

13:00 Astronautak. Abestien aurkezpena familia osoarentzat (Ene kantak).

14:00 HIRU3. CD Aurkezpena. Gorritxo galtzagorria eta 3TXULO saioko aktoreak.

17:00 Tipi- tapa- tipi- ilunabarrean. Ipuin kontaketa. Familia osoarentzat. Miren Agur Meabe eta Eider Eibar.

ARETO TXIKIA

11:30 Kantu-jolas. Tailerra familia osoarentzat. Amagoia Mendibe eta Nerea Unzalu (Berbaro).


13:00 Kantu-jolas. Tailerra familia osoarentzat. Amagoia Mendibe eta Nerea Unzalu (Berbaro).

16:00 Arte eta kultur heziketa publikoa gazteentzat. Hitzaldia.

SAGUGANBARA KANPOAN

12:00 Zuresku. Egurrezko jolasak familia osoarentzat. (euria bada, Andra Mariko Elizpean).

51. DURANGOKO AZOKA



2016 ko ABENDUAREN 2tik
6 Ra

Frankismoaren zauriak desagertu ez direnean, epaiketa eta barkamenik barik

Unai Iturriaga eta Igor Elortza durangarrek 'Francoren bilobari gutuna' antzezlaneko gidoia landu dute



Gaur egungo ospitale batean garatzen da antzezlan, eta iragana eta oraina lotzen ditu. Guillaume Meziat



Ander Lipus aktorea da protagonistetako bat. Guillaume Meziat

> SZENATOKIA Markel Onaindia Franco hil zen, eta kasik ezer gertatu ez balitz lez egin zuen aurrera Espainiar estatuak. Frankismoko krimenengatik epaiketarik ez, barkamenik ez, zauriak bai, ordea. Zauri horiek ez dira itxi, eta min pertsonal eta kolektiboak arintzeko ariketa dakar *Francoren bilobari gutuna* antzezlanak. Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain eta Dejabu Panpin Laborategia konpainien obrarako, Unai Iturriaga eta Igor Elortza durangarrek landu dute gidoia.

Unai Iturriagaren esanetan, “iraganak utzitako arrasto trau-

“Garbitzen ez den zauria behin eta berriro zornetzen da”

“Piezak elkartzen doazela ikusten duzu, eta benetan polita da”

matikoa” jasotzen du 6an taularatuko den lanak. “Nazismoak bere epaiketa eduki zuen Nurenbegen, beste gatazka batzuetan ere egon dira, eta Frankismoak ez du eduki epaiketarik. Hori guztiori barruan geratzen da, eta garbitzen ez den zauria behin eta berriro zornatzen da”, esan du gidoilariak.

Jatorri alemaniarretik

Ximun Fuchs obraren zuzendararen –Manex anaia aktore ere bada– familia jatorri euskaldun eta alemaniarrekoa da. Hainbat senide alemaniar juduentzako kontzentrazio esparruetan egon ziren, eta adar euskalduneko aitona bat Espainiako eremuetan ere bai. Testuinguru horretatik jaio zen obra sortzeko ideia edo oinarria.

Günther Anders filosofo judu alemaniarrek gutun filosofiko bat idatzi zuen, nazi baten semeari zuzendua. Horregatik, ikuskizun honetako kideek Francoren bilobari idaztea pentsatu dute.

Gidoia, piezak elkartzen

Iturriagak dio kurioa izan dela gidoia idazteko modua. Duela urte eta erdi hasi ziren behar-rean, eta antzezleek egonaldika egiten dute lan. Inprobisazioen bidez funtzionatzen dute, eta Elortzak eta Iturriagak horien gainean osatu dute testua. “Oso astiro eraikitzen joan da, zati batean galduta ere egon gara. Baina, gero, piezak elkartzen doazela ikusten duzu, eta benetan polita da”, argitu du Iturriagak.

Gidoia biren artean idazteko lanaz galdetuta, Iturriagak us-te du ez dela gaitza kolektiboki funtzionatzea. Gainera, Elortza eta biak ondo konpontzen dira behar-rean ere. Hori bai, eurentzat erronka bat da antzerkian murgiltzea, ez baitute ohikoa. “Gu ez gara antzerki idazleak, eta eurek ere badakite hori. Deitzen digutenean, prozesu baten parte izateko eskatzen digute. Oso garrantzitsua da jakitea zein den bakoitzaren funtzioa. Gurea testuak idaztea zen, baina istorioa ez zen gurea bakarrik”.

Hala ere, gustura azaldu da hiru konpainiekin bat egin izanaz. “Erraza da eurekin lan egitea, eta niretzat ikasbide itzela da”, aitortu du Durangoko sortzaileak.

Abenduaren 6an ikusi ahal izango da lan horren emaitza, San Agustineko Szenatokian.

SZENATOKIA GUNeko EGITARAUA

ABENDUAK 2, BARIKUA

10:30 IKASLE EGUNA. ‘Proposamen koreografiko musikala’.

11:45 IKASLE EGUNA. ‘Proposamen koreografiko musikala’.

ABENDUAK 3, ZAPATUA

20:00 Gauen argi omenaldia. Argizaiola Saria.

ABENDUAK 4, DOMEKA

19:00 ‘Mami Lebrun’. Xake Produksioak. Sarrera: 8€ (Francoren bilobari gutuna antzezlanaren sarrera ere erosiz gero, 15€ biak).

ABENDUAK 5, ASTELEHENA

12:00 ‘Emoziotegia, emozioen hiztegia’. Bi’Arte taldea.

12:30 ‘Oreka-tu’. Arimaz taldea

13:00 ‘Sexijentziak askatuz’.

13:30 ‘Bihotz Salatara’. Atx Teatroa

18:00 ‘Aukerak’. Arteko Antzerki Taldea

18:30 ‘Hiroshimako zuhaitza’. Kabia

19:00 ‘Muntu’. Arropaineko Arragua

19:30 ‘Besaulkiak’. Abarka Antzerki Taldea

ABENDUAK 6, ASTEARTEA

12:30 / 18:00 ‘Francoren bilobari gutuna’.

Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain & Dejabu Panpin Laborategia taldeen eskutik. Sarrera: 10€ (Mami Lebrun antzezlanaren sarrera ere erosiz gero, 15€ biak).

Mami Lebrum antzezlanagaz dolua eta memoria landuko dituzte San Agustinen

Kepa Erraztik eta Ane Pikazak, Egoitz eta Mirenen paperean, amonaren heriotzari aurre egingo diote



Xake Produzkoak taldearen hitzordua abenduaren 4an izango da, San Agustinen.

> ANTZERKIA Jone Guenetxea
Gazteak antzerkigintzara hurre-ratu guran, ikasleentzako hiru saio prestatu ditu gaurko Elirale Dantza konpainiak. Literatura abiapuntu hartuta, gorputz adierazpena helburu izango dutela aurreratu du Itziar Elias Eszenatokiko arduradunak. Saio bakoitzean 40 ikaslek parte hartuko dute.

Mami Lebrun oholztan
Xake produkzioak-en Mami Lebrum antzezlanaz gozatzeko aukera izango da abenduaren 4an, San Agustineko oholztza gainean. Kepa Erraztik eta Ane Pika-za aktoreek, Egoitz eta Mirenen paperean, amona Kontxaren heriotzari aurre egin beharko diote. Denboran aurrera eta atzera eginez, euskalkien bidez pertsonaiak ezberdinduko dituzte. Euskara batua, lapurtera, bizkaiera eta Debagoieneko euskalkia erabiltzen dituzte obra osoan zehar. "Oso antzezlan

polita eta hunkigarria da. Ilobak amonaren historia kontatzen du", dio Eliasek. Szenatokiko arduradunak antzezlan bati aupada bat ematen saiatzen dira azokan. Ikusgarritasun falta duten taldeei laguntzea dute helburu. Aurten Xake produkzioak izan da talde horietako bat.

Antzerki maratoia
Zortzi taldek parte hartuko dute aurten San Agustin kultur guneko antzerki maratoian. Ordu laurdeneko antzezlan zatien egitarau oparoa osatu dute. 12:00etan hasi eta 19:30era arte garatuko dute arte eszenikoen maratoia.

Bi Arte taldearen *Emoziotegia*, *emozioen hiztegia* izango da jardunaldiari hasiera emango diona. Ondoren, *Oreka-tu* (Arimaz taldea), *Sexijentziak askatuz* (Bazen Behin Clown), *Bihotz salataria* (ATX Teatroa), *Aukerak* (Arteko antzerki taldea), *Hiroshimako Zuhaitza* (Kabia), *Muntu* (Arropaineko Arragua) eta *Besaulkiak* (Abarka Antzerki Taldea) antzezlanak taularatu dituzte.

Maratoiko nobedadeetako bat aurkezlea izango da. Jon Martinez *Txikik* bere bakarriketekin girotuko du antzezlan zatien trantsizioa.

Etxean bezain ondo ...

Ordutegi malgua: 07:30-19:00

Metodologia berritzaileak

Ingelesa urte 1etik

Bakarkako arreta

Instalazio berriak



San Antonio Ikastetxea
DURANGO
Irakasleon Kooperatiba

T. 94 681 67 76 // www.sanantonio-santarita.com



**INSKRIPZIOAK
ZABALIK!!**

2014, 2015, 2016 urteetan
jaiotako haurrentzat

Kontakturako pertsona:
raquel.mintegi@sanantonio.eus

Xabier Olaso | Idazlea | Otxandio, 1964



“Haurrek daukaten jakin-mina asetzeko beharrezko tresnak dira liburuak”

Xabier Olasok Mikel Zarate haur literatura saria irabazi du aurtan ‘Erraldoiak’ ipuinagaz

> BERBAZ Aimar Esteban
Xabier Olaso (Otxandio, 1964) haur eta gazte literaturako idazlerik garrantzitsuenetarikoa da. Azken urtean aurkeztu duen ‘Erraldoiak’ (Elkar) liburuagaz Mikel Zarate haur literatura saria irabazi du.

Zer dauka berezia ‘Erraldoiak’ ipuinak? Irakurleari irakurketa eritimoa aldatzen dion liburua dela aipatu duzu. Zergatik?
Liburuak entziklopedia txikia izeneko atala dakar bukaeran. Atal horretara jo behar du irakurleak kontakizunaren nondik-norakoak ulertzeko. Istorioan zehar agertzen diren Betangako –horrela deitzen da erraldoidien lurraldea– izaki mitologiko, animalia, leku eta bestelako

informazioei buruzko azalpenak daude bertan. Beraz, irakurri eta berriro ere aurreko gunera bueltatuko da irakurlea istorioan aurrera egiteko.

Umorea eta fantasia erabiltzen dituzu istorioak lantzeko.
Umorea da kontakizun honen ezaugarri nabarmenetako bat, noski. Fantasia, bestalde, bere-berea du ipuinak hasieratik amaieraraino irudikatzen den munduan. Izan ere, pertsonaiek, eta kontakizunaren hariak berak ere, umorea eta fantasia lantzeko aukera paregabea ematen dute. Erraldoidiez ari garela, gehiegikeriak, absurdoak, guztia gehiegizkoa eta neurritz gainera izateak irribarra eragiten duela uste dut.

Morenteren ilustrazioek zerbateko indarra daukate zure istorioa kontatzerako orduan?
Lan ederra egin du Enrique Morentek. Bere ilustrazio irudimentsuek ederki agertzen dute Betangako erraldoiden neurritz kanpoko mundu hori. Beraz, liburuaren atal garrantzitsua osatzen dute, kolorea ematen diote, jantzia ipini.

“**Irakurleek liburuari egin dioten harrera da saririk onena**”

Mikel Zarate haur literatura saria irabazi zenuen ekainean ‘Erraldoiak’ ipuinagaz. Zer suposatzen du zuretzat?
Oso pozgarria da niretzat, hainbat lanen artean, epaimahai-kideek neurea begiz jo izana. Haur literaturan sari garrantzitsua da, eta beraz, ohorea da niretzat. Esker hitzak bakrrik ditut. Liburu epe laburrean irten da plazara, eta irakurleek harrera ona egin diotela ere jakin dut. Hori guztiori, opari handia da niretzat. Saririk onena irakurleek kontuan hartzea da azken finean.

Haurrek literaturan interesa daukela ikusten duzu? Interes hau galdu egiten da den-

boragaz? Zer egin daiteke haur irakurleak heldu irakurle bihurtzeko?

Haur txikiek irakurtzen dutela uste dut, liburuetik interesa badutela, alegia. Irakurtzen eta idazten ikasteaz batera, sekulako mundua zabaltzen da haur horien begietara. Haur liburuak irakurtzea da beren jakin-mina asetzeko iturri garrantzitsua. Liburuak ere zientzoki dituzte plazan, gai eta era askotarikoak. Urteak joan urteak etorri, baina, zaila da jakin-min horri liburu bidez eustea. Izan ere, beste hamaikatxo iturri izango ditu eskura orain gazte-nerabea den horrek; eta lehenengo begiratuan liburuak baino erakargarriagoak direnak, seguritik. Beraren interesgune berriei lotzen zaizkien liburu-aukerak ere urriagoak izango dira. Hor eten bat izan ohi da, liburuetatik aldentze bat. Eskolak eta, familiak, batez ere, zeresan handia dute gai honetan. Nire ustez, sakoneko azterketa bat egin beharko litzateke auzi honen inguruan.

Helduentzako poesia, haurrentzako poesia, ipuinak... hainbat generotan ibili zara. Zeinetan sentitzen zara hobeto? Zer dauka genero bakoitzak?

Genero ezberdinez ari garela, niretzat ez dago hoberik edo txarragorik, bakoitzak bere ezaugarriak ditu, bakoitzak bere ekarpena egiten dit. Barrenak, sasoiko gogoak edo beharrak agintzen didate noiz zeini heldu. Denetan sentitzen naiz eroso eta denak atsegina ditut.

Hurrengo proiekturen bat buruan? Zer ari zara orain idazten?

Berandu barik Pamielaren eskutik irtengo den *Nik papaita, zuk papaita* liburuaren azken orrazketa etorriko da laster. Bestalde, aspaldian idatzitako ipuin-bilduma bat berreskuratuta eta txukuntzeko asmoa daukat.

MATERIAL DE CONSTRUCCIÓN
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

ROTU-NET
LATEX ERROTULUAK

www.rotunet.net



Durangaldea bizi eta ezagutu!

*Toki Garapena, Hondakin bilketa, Gizarte Zerbitzuak,
Euskara, Kirolak eta Kontsumo bulegoa*

ABADIÑO · ATXONDO · DURANGO · ELORRIO
IURRETA · IZURTZA · MAÑARIA · ZALDIBAR

www.mdurango.org



Durango Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango



Garazi Mugarza Markina | Ikaslea eta ITU Bandako kidea | Mallabia, 1995

> **LITERATURA** Itsaso Esteban
Erizaintzako azken ikasturteko lehen lauhilekoa egitera Txilera joan zen, uztailean, Garazi Mugarza, eta han harrapatu du 51. Durangoko Azokak. ITU Bandako beste hainbat idazle gazte gazte abiatuak 'Lekore' proiektuaren bitartez egongo da, baina, Azokan. Txileko Santiagotik erantzun ditu galderok Anboto astekarian kolaboratzaile ere baden Mugarzak.

ITU Banda da 'Lekore' aldizkariaren editore taldea. Nortzuk zarete? Zelan elkartu zineten? ITU Banda duela hiru urte sortu zuten, hasiera batean hiru kide gazte. Lau fanzine kaleratu eta hainbat irratsaiotan hartu zuten parte. Gerora, taldea handituz joan zen, zazpi izate-raino; Paul Beitia, Itziar Ugarte, Alazne Arruti, Martin Bidaur, Jon Gurrutxaga, Mikele Landa eta ni. Gehienok ezagunak ginen, edo lagun berak genituen. Iazko uztailean Eako Poesia Egunean ITU skizuna aurkeztu eta anonimotasunetik atera ginen. Ikuskizun berezia izan zen guretzat. Gerora, abenduan, *Lekore* aldizkariaren zero zenbakia kaleratu genuen Durangoko Azokarako, eta egun, horretan dihardugu.

Zerk bultzatu zintuzten 'Lekore' proiektuari ekitera?

Gazteok geure testuak argitaratzeko dugun bide bakarrentariko literatur sariketen bidezkoa da, eta hori oztopo bat da, azken finean. Espazio bat sortzeko beharra ikusten genuen gure testuak argitaratu ahal izateko, eta literatur aldizkari bat sortzearen ideia geneukan buruan. Iniziatiba guk geuk hartu behar genuela iruditzen zitzaigun, eta horrela sortu zen *Lekore* aldizkaria.

Gustura zaudete jendeak agertutako babesagaz?

Proiektuak kuriositatea piztu zuen iaz Durangoko Azokan, eta oso pozik gaude jasotako

“Espazio bat sortzeko beharra ikusi genuen gazteon testuak argitaratzeko”

Beste sei kide gazte dihardu Mugarzak gazteen literatura argitara ematen duen 'Lekore' aldizkarian



harreragaz, espero baino harpidedun gehiago ditugu. Ea bide beretik jarraitzen duen.

Azokan egongo da aldizkaria eskuratzeko modurik?

Bai, iaz azokaren lekorean egon ginen aldizkaria saltzen, eta aurten Landako Gune barruan egongo gara, Bagatoz standean, *Txakur Gorria* ipuin ilustratuekin, *Erraiak* proiektuagaz eta Errime taldearen diskoagaz batera. Ni ezingo

naiz egon, baina gainerako kideak han izango dira.

Zer edukigaz osatu duzue lehenengo alea?

Lehenengo alean, poesia eta narrazioez gain, Violet Fonten biografía eta poema berreskuratua, Danele Sarriugarteri eginitako elkarrizketa, June Jordanen inguruko erreportajea eta hainbat itzulpen aurkitu daitezke. Bigarren alea labean da, eta azokarako kaleratuko dugu.



“**Aldizkariako testu guztiak idazteko zaletasuna duten gazteenak dira**”

“**Aurten Azoka barruan egongo gara, Bagatoz izeneko standean**”

“**Oso pozik gaude harreragaz; espero baino harpidedun gehiago ditugu**”

Zer egileren lanak argitaratu dituzue lehen bi ale horietan? Idazteko zaletasuna duten gazteek idatzi dituzte testu guztiak, batzuk ITU bandako kideek, eta gainerakoak konplizeek.

Edozeinek dauka testuak bidali eta 'Lekore'-n argitaratzeko aukera?

Bai, www.lekore.eus webgunearen bidez bidali daitezke testuak eta konplize egin. Helbide berean, “izan lektore” atalean harpidetzeko aukera ere badago.

Errezitaldiak eta bestelako emanaldiak ere egiten dituzue: 'Isabel Iturberen bizitza eta heriotza' ikuskizuna sortu zenuten. Urtean 'Lekore' aldizkariaren hiru ale kaleratzeaz gain bestelako egitasmoak ere badauzkazue?

Isabel Iturberen bizitza eta heriotza ikuskizuna iazko maiatzean aurkeztu genuen, Literatura jaialdian, Zarautzen, eta emanaldia berriz errepikatuko dugu 2017ko Loraldian. Aurten aldizkariaren zenbaki bi izan dira, baina datorren urtetik aurrera urtean hiru izango dira, eta errezitaldiak egiten jarraitzea ere ez dugu baztertzen. Ea gauzak nola datozen.



Mami Lebrun
Xake Produzioak
Abenduaren 4an, 19:00etan



Francoren bilobari gutuna
Artedrama, Le Petit Théâtre de Pain & Déjàvu Panpin Laborategia
Abenduaren 6an, 12:30 / 18:00

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUINEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.eus
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

<p>JAT ETX EA</p> <p>EGUNEKO MENUA</p> <p>IGANDEETAN MENU BEREZIAK</p>	<p>ABENDUAK 2 23:00etan WILLIS DRUMMOND DURANGOKO AZOKA</p>	<p>ABENDUAK 3 23:00etan ZEA MAYZ DURANGOKO AZOKA</p>
<p>ABENDUAK 4 22:30ean HESIAN, 10 URTE 11 GONBIDATU DURANGOKO AZOKA</p>		

Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

%



A-METZ DEKORAZIOA

- > -%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
- > -%20 ideien proiektuan.



BETIXU JATETXEA

- > - %10 asteburuko otorduetan eta kartan, ostiral eta larunbat gauetan.



COLOR PLUS

- > -%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
- > -%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.



EPOCA SUKALDEAK

- > -%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- > -%10 sarreraren deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



GIMNASIO ZIRKIN

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- > Bazkide direnei 10 sesioko solarium bonoa doan.



HITZ LIBURU-DENDA

- > -%10 euskarazko liburuetan.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- > -%15 sarreran.



ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

- > -%5 lehenengo erosketan.
- > -%10 erosten den bigarren arropan.



IURRETA KOPISTEGIA

- > -% 10 eskola eta bulego materialean.
- > -%5 musika, opari eta liburuetan.



KATXARRO JATETXEA

- > - %10 asteburu- eta larunbat menuetan.



KIROL ERROTA GIMNASIOA

- > Bazkide berriei matrikulazioa doan.



LANDAKO OPTIKA

- > -%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- > -% 5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
- > -%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.



NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- > -% 5 Dippner oinetakoetan.
- > -% 10 Gabonetako produktueta: turroiak, polboroiak...



OPEN KLUB

- > -%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.



PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- > Bosgarren gosaria doan.
- > Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.



UNAMUNZAGA ETXEBARRIA HORTZ-KLINIKA

- > Azterketa eta bi erradiografiak doan.



UNDARRI BIKE

- > -%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
- > -%10 bizikletako osagarrietan.



URRIKE LIBURU-DENDA

- > -%5 liburuetan.
- > -% 10 papergintzan.



UR URDAIBAI

- > -%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



Anbotoren Lagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Eskualdeko argitalpenak



Hegats

Zaloa Fuertes (Askoren artean)
Argitaletxea: EIE

Euskal Idazleen Elkarteak argitaratzen duen *Hegats* urtekarian hainbat idazleren lanak topatu daitezke. Liburua osatzeko, Zaloa Fuertes abadiñarraren argazkiak erabili dituzte. Joan Mari Irigoieni ateratako argazki berezi bat du azalean.



Astola 10

Txelu Angoitia
Argitaletxea: Gerediaga


Hamar urte bete ditu Astola urtekariak. Durangaldeko gaien ikerketan eta historian espezializatutako argitalpenak makina bat erreportaje ekarri ditu urteotan. Oraingoan, Durangoko trenbidearen lurperatzeari buruzko azterketa dakarte, esaterako.



Bille

Unai Ormaetxea
Argitaletxea: Erroteta

Unai Ormaetxea idazle zornotzarraren hirugarren liburua da *Bille*. Bere eguneroko moduko bat da, urtaro bakoitzeko giro eta kutsu jakin bateko testuak biltzen dituena. Blog batean hasi zen idazten, eta horik sortu zitzaion ideia.



Será Colosal

Joseba Sarrionandia
Argitaletxea: Txalaparta

Kolosala izango da liburuaren gaztelaniazko bertsioa argitaratu du Txalapartak, Daniel Escribanoren eskutik. Gerra sasoiaren mamitzen den istorioa dakar Sarrionandiak, ume baten begietatik kontatua. Fikziozko Kalaportu herrian kokatzen da, eta zirku alemaniarraren etorrera amesten du.



Hiztegi errimatua

Xabier Amuriza
Argitaletxea: Lanku

Aurten plazak utzi dituen Xabier Amurizak lan handia egin zuen bertsoaren ikerketan, eta *Hiztegi errimatua* da horren adibide. Liburu horren berrargitalpena dakar orain. Bestalde, Amurizaren plaze-tako jarduna CD bikoitz batean batu dute, eta hori ere eskuragarri egongo da Lankuren standean.



Nijole Miliauskaite

Leire Bilbao
Argitaletxea: Susa

Susa argitaletxearen *Munduko poesia kaierak* atalean, Nijole Miliauskaite idazle lituaniarraren itzulpena landu du Leire Bilbaok. Hemen oso ezaguna izan ez arren, bere herrian badu errekonozimendua Miliauskaitek: 1996an Lituaniako idazle elkartearen saria jaso zuen, eta 2000. urtean Sari Nazionala.

Jesus Kerexeta Azkoaga (1922-2007)

Iñaki Salvador
Argitaletxea: Elorrioko Udala

Elorrioko konpositore autodidaktak sortutako abestien partiturak eta musika jasotzen ditu. Bere seme-alabek bultzatu dute, eta Iñaki Salvadorrek zuzendu. Liburuan, partiturez gain Jesusen bizitzaren nondik norakoak azaltzen dira. Diskoan, aldiz, Itziar Barredok Jesusen musika pianoan interpretatu du.



Zaurietatik dario

Xeberri eta Gontzal Mendibil
Argitaletxea: Elkar

Xeberrik eta Gontzal Mendibilek 1976an argitaratu zuten *Zaurietatik dario* diskoa, eta orain Elkarrek eguneratuta dakar. Sasoi hartan, urte eta erdiz elkarrekin ibili ziren plazarik plaza, eta 200 kontzertutik gora eman zituzten. Testuinguru politikoak markatutako abestiak jasotzen ditu, batez ere.



momotx
t a b e r n a



Plateruen plaza, 12 DURANGO
Tel.: 946 811 006

Juego
bolos

San Agustinalde 2 - 1 Durango
T: 94 621 54 88
info@juegobolos.com
www.juegobolos.com

ekin ner group

ekin S. Coop.
Arriagane industrialdea (Boroa auzoa)
48340 Zornotza (Bizkaia)
www.ekin.es

*Durangaldeko idazle eta musikariek
2016. urtean liburu eta disko forman egindako sorkuntzen ale hauek
eskuragarri izango dira Durango Azokan*

**Kartoizko kaja**

Paddy Rekalde eta Eider Eibar
Argitaletxea: Elkar

8 urtetik gorako umeentzako liburua osatu dute Paddy Rekalde idazleak eta Eider Eibar ilustratzaileak. Etxean apalategi bat muntatzera etorri dira langile batzuk, eta materiala kaxa batean dakarte. Anartzek, berareztat hartu du kaxa hori.

**Friederike**

Jesus Mari Arruabarrena
Argitaletxea: Noctis Books

II. Mundu Gerraren ostean Espainian identitate faltsuagaz bizi izan zen mediku naziari buruzko istorioa da. Liburuak badauka fikzio puntu bat, baina protagonistaren biografia erreala da ardatza. Argazki eta letren bidez kontatuko du.


Bainera bete itsaso
Miren Amuriza eta Irati Eguren
Argitaletxea: Elkar

Itomen baten kontakizuna da, zelan protagonistak bere aire burbuila erraldoia eraikitzea lortzen duen. Ume batek bainerara heltzeko egiten duen bidea, eta zelan han itsaso bat topatzen duen. Miren Amuriza berriztarraren testuekin eta Irati Eguren durangarraren ilustrazioekin osatu dute.




Erraldoiak
Xabier Olaso
Argitaletxea: Elkar

2016ko Mikel Zarate saria irabazi du Xabier Olaso otxandiarrak *Erraldoiak* testuagaz, eta horri esker argitaratu du lana. Gainera, 2013an Euskadi Saria jaso zuen, haur eta gazte literaturaren atalean. Umorez eta fantasiaz beteriko ipuin bat da oraingoa, erraldoien bizimodua ardatz duena.



Txomintxo eta Perutxo maiteminduta
Txomin eta Peru Magdalena
Argitaletxea: Elkar

Txomintxo eta Perutxo pertsonaien abenturen kapitulu berri bat plazaratu dute Peru eta Txomin Magdalena anai durangarrek, Elkar argitaletxeagaz. Txomintxo eta Perutxo maiteminduta daude ipuin berrian. Beraien sentimenduei izenik edo mugarik ezarri barik maitemindu dira.

**Altzoko erraldoia**

Fernando Torrecilla
Argitaletxea: Autoekoizpena

6 eta 8 urte bitarteko umeei zuzendutako lana da Fernando Torrecillarena, eta *Altzoko Haundiyaren* mitoa oinarrituta dago. Gorputz izugarri batean ka-teaturik sentitzen den gizonaren istorioa kontatzen da. Irakurtzeko erraza da, eta ilustrazioak nabarmentzen dira.

Party&borroka
Ion Andoni del Amo
Argitaletxea: Txalaparta

Euskal Herriko musika panoramak azken hamar kadetan eduki duen garapena aztertu du Ion Andoni del Amok. Zelan musika hori nortasun batez eta kontrakulturagaz lotuta egon den, eta azken urteetan zelako aldaketa bizi izan duen. Elkarrizketa eta analisi-tan oinarritu da.



Olatu bat dut sabelean
Miren Amuriza eta Sandra Hernandez
Argitaletxea: Autoekoizpena

Miren Amuriza eta Sandra Hernandez berriztarrek sorturiko liburua da. Lehenak testuak landu ditu, eta bigarrenak ilustrazioak. Berrizko Udalak herri-tarren euskarazko sorkuntza laguntzeko daukan diru-laguntza jaso dute sei urtetik gorako umeei zuzenduriko ipuina argitaratzeko.



Zatoz gu ezagutzera
94 681 00 50
sanjose@durangojesuitak.org
www.informazaitetz.eus

Magdalena Gozotegia
ARTISAU-GOZOGINTZAKO LANTEGIA

Urtero bezala gure dendan eskaintza zabala aurkituko duzu gure artisauro-produktuetan, bai okindegikoetan, bai gozotegikoetan

Fray Juan Zumarraga, 3 · DURANGO · Tel.: 946 810 929

Bost kontzertu handiren plaza izango da Plateruena Azokan

Willis Drummond taldeak 'Tabula rasa' disko berria aurkeztuko du gaur gauean

> **MUSIKA** Itsaso Esteban

Plateruena Kafe Antzokia da Durangoko Azokako kontzertu handien gunea. Azokak irauten duen bost egunetan kontzertu bana izango da, gauez, Plateruenean. Hasteko, gaur, *Tabula rasa* disko berriko kantak eskainiko ditu Willis Drummond taldeak. Duela lau urte kaleraturiko *A ala B* aurreko diskoagaz bira luzea egin eta gero, 2014. urtean egin zuten geldialdiaren ostean kaleratu dute bosgarren disko hori. Disko berrian ere bere isla duen Willis Drummond taldearen zuzeneko indartsua da, hain zuzen ere, gaur Plateruenean gozagai izango dena.

Zea Mays bilbotarren txanda izango da bihar, 23:00etan. Taldearen zortzigarrena den *Harro* diskoa aurkeztuko dute, lan horretan bildutako hamabost kanta zuzenean emanez. Hogeigarren urteurrenaren atarian arituko da laukotea Durangoko Plateruenean, eta egindako bideagaz asebeteta daudela adieraziko dute *Harro* izenburuko disko berriaren aurkezpenean.

'Harro' disko berriko kantak joko ditu Zea Mays laukoteak, bihar

Etzi, 'Hesian 10 urte, 11 gonbidatu' kontzertu berezia izango da aukera

Domekan, *Hesian 10 urte, 11 gonbidatu* emanaldia hartuko du Plateruena Kafe Antzokiak, 22:30ean hasita. Talde horrek bete duen hamarkada ospatzeko, hainbat lagun eta musikari gonbidatuko dituzte domekako hitzordura. Aurreratu dutenez, Esne Beltza taldeko Xabi Solanok, Vendettako Pello Reparazek, 22M2 taldeko Naroa Gaintzak, Goseko Ines Osinagak, Iheskideko *Xaguk*, eta Kaotiko taldeko Jonyk eta *Aguayikok* parte hartuko dute abenduaren 4ko Platerueneko jai horretan.

Gonbidatu bereziekin arituko da Skakeitan taldea ere, abenduaren 5ean, Plateruenean, *Galera* disko berria aurkeztuz.

Bide Ertzean Tolosako musika taldeak eskainiko du Durangoko Azokako azken kontzertua, martitzenean, 20:00etan. *Zutaz kantatzeko* disko liburua dakar Bide Ertzeanek Durangoko Azokara. Jon Eskisabel (Lasarte-Oria, 1969) kazetariak elkarrizketen bidez landutako liburua eta orain arte grabatu bako kanten diskoa da. Pop musika eta poesia uztartzen 18 urte daramatzan taldearen inguruan ibilitako jendeari egindako elkarrizketek osatzen dute kontakizuna, eta argitara eman gabeko 14 kantak diskoa.

Aurrez erosiz gero 10 euroko prezioa dute Willis Drummond eta Zea Maysen kontzertuek, eta 12 eurokoa osterantzean. 7 eurokoa da Hesian-en kontzerturako sarrera, eta 5ekoa Skakeitanen emanaldikoa. Bide Ertzeanek Azokaren azken egunean eskainiko duen emanaldirako sarrera, aldiz, doakoa izango da.



Azokako egun guzietan hartuko du Plateruena kontzertu bana.



Bide Ertzean tolosarrek eskainiko dute Azokako Platerueneko azken kontzertua.

PLATERUENA EGITARUA

ABENDUAK 2, BARIKUA

10:00 IKASLE EGUNA. 'Euskal kantagintza' Bi saio. Ikasleentzat kontzertua, Pettiren eskutik.

23:00 Willis Drummond Tabula Rasa diskoa aurkezteko kontzertua. 10€ webgunean, 12€ txarteldegian.

ABENDUAK 3, ZAPATUA

23:00 Zea Mays Harro diskoa aurkezteko kontzertua. 10€ webgunean, 12€ txarteldegian.

ABENDUAK 4, DOMEKA

22:30 'Hesian 10 urte, 11 gonbidatu' kontzertu berezia. 7€.

ABENDUAK 5, ASTELEHENA

23:00 Skakeitan Zuzeneko kontzertua. 5€.

ABENDUAK 6, ASTEARTEA

20:00 Bide Ertzean. Zuzeneko kontzertua. Doan.

SARRERAK SALGAI

www.plateruena.eus / Txarteldegian 17.00-19.00 eta kontzertua hasi baino ordu erdi lehenago

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com



IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxe: 946 215 404

Eneko Barberena Mondragon | Plateruenerako kudeatzailea |

“Erlojuaren kontra ibiltzen gara lanean Plateruena gaueko itxuratik egunekora pasatzeko”



> PLATERUENA Itsaso Esteban Durangoko Azokara begira, prestaketekin oso lanpetuta ibili dira asteotan, Plateruenean. Kafe Antzokiaren ku-

deatzaile moduan lehen urtea izango du Eneko Barberenak.

Zelan joan dira prestaketak? Niretzat dena izan da berria, eta

ikasten eman ditut azken egunok. Duela pare bat astetik bete-betean gaude Plateruenean Azoka giroan sartuta, eta urduritasuna ere nabari dut. Hala

ere, arraroena egunok lasai-lasai igarotzea litzateke.

Plateruenerantz zelako ahalgina eskatzen du Azokak dakarren jendetza hartzeak? Lantalde guztiaren inplikazioa suposatzen du, jende askoren esfortzua. Kudeatzaile moduan, oso harro nago jendearen erantzunagaz. Jaten ematen dugu, edariak eskaini, kontzertuak antolatu... Aretoa jaso eta garbitu egin behar da... Plateruenerako bazkideek ematen diguten laguntza ere ezinbestekoa da, eta asko eskertzen dugu: atean eta leihatilan egoten dira.

Azokako egunetan, eguneko 24 orduetan dago norbait lanean Plateruenean.

Bai, Azokako egunetan 24 orduz dago jendea lanean Plateruenean, nahiz eta publikoarentzat ordu batzuetan itxi egiten dugun. Erlojuaren kontra ibiltzen gara taberna gaueko itxuratik egunekora pasatzeko lanean. Izan ere, egunaren ordu desberdinetan aurpegi desberdinak eskaintzen ditu Plateruenerak.

Zeintzuk dira aurpegi horiek? Goizeko salda eta pintxoak hartzeko aukera eskaintzen dugu, bazkaldu edo arratsaldeko

tragoa hartzeko lekua, eta baita gaueko kontzertuak gozatu eta ostean parranda egiteko ere. Durangoko Azokaren parte garrantzitsua gara, eta horrela erakutsi du Deustuko unibertsitateak argitara eman duen inkestak ere: Azokako gune eza-gunenetakotzat identifikatzen gaituzte bisitari askok.

Ikuspuntu ekonomikotik, zer garrantzi dauka Azokak Plateruenerantz?

Oso garrantzitsua da guretzat Azoka. Urtean lan gehien egiten dugun sasoia da.

Orain arte, zelan bizi izan duzu Azoka egunetako Plateruena bezero moduan?

Ez nuen ezagutzen atean dagoen lan eta inplikazio guztia. Ez nintzen ohartzen makinaria zer punturaino egon behar den koipeztatua hemen eskaintzen den guztia eskaintzeko.

Azokaren eskaintza gozatze-ko tarterik atera ahalko duzu?

Baietz espero dut. Abenduaren 6an *Frankoren bilobari gutuna* ikusteko sarrerak badauzkat, eta gurako nuke Bide Ertzean entzutea ere. Arratsalderen batean Landakon zehar ibili ahalko naizela ere espero dut.



2, 3 ETA 4 LOGELAKO ETXEBIZITZEN HURRENGO ERAIKUNTZA

Ertzaintzaren ondoko biribilgunearen alboan



informa zaituz

946 814 495 / 650 397 007

www.argolabe.com

Andoni Olariaga | Filosofian lizentziatua | Berriz, 1984

“Independentismoa 4-5 urtean krisian egon da eta, nire ustez, orain dabil altxatzen”

Independentziaren ikuskera aldatu beharraz hausnartu du ‘Independentzia helburu’ liburuan

> POLITIKA Markel Onaindia
Panorama politikoa ikaragarri aldatu da azken urteetan, eta eszenatoki berri honetan independentziarako bidez egindako hausnarketa dakarte Andoni Olariaga berriztarrak, Julie Goikoetxeak, Imanol Galfarsorok eta Unai Apaolazak. Bakoitzak beretik, iritzi bateraturik barik, euren artikuluekin ‘Independentzia helburu’ liburua osatu dute. Iaz argitaratu zen lehenengoz euskaraz, eta aurten gaztelaniazko bertsioa atera dute Txalapartagaz. Betaurrekoak aldatzeko proposamena egin du berriztarrak.

Independentziaz hausnartu duzue liburuan. Ze ikuspegi dakarzu?

Liburuko nire zatian, batez ere ezker abertzalean azken 50 urteetan egon den erresistentzia espirituaren inguruko analisi bat egiten dut. Independentzia negoziazio mahai batean lortzen den zerbait lez ulertu izan da, ikuskera hori egon da. Hemen proposatzen duguna da independentzia prozesu bat dela, naziogintza edo estatuginza. Osagai ideologiko batzuk ematen dira bertan, independentzia gure buruetan zerbait hurrekoa edo urrunekoa den ikusteko.

Independentismoak betaurrekoak aldatu behar dituela irakurri dizut. Zer esan gura duzu horregaz?

Askapen prozesuan, ematen zuen bat-batean mundu bat amaitu zela; mundu biren artean harrapatuta eta krisi baten erdian. 50 urtez askapen mugimenduak eduki duen ideologiak beste sasoi bateko proble-



matika bati erantzuten zion; iturri intelektualak, beharriak... Mundua aldatu egin dela azaltzen saiatzen naiz liburuan, eta betaurrekoak ere aldatu egin behar ditugula. XX. mendea amaitzearen zenean, European borroka armatua praktikatzeko azkenak ginen. 2011n, mundu horren parte asko desagertu dirala agerian geratzen da, baina gu oraindik tresna intelektual horregaz gaude. Hor identitate krisi bat sortzen da, eta birziklatu beharra dakar.

Sektore batzuen artean etsipena zabaldua dago, galdu egin den sentsazioa...

Garaipena eta porrotak, zelan neurtu izan dira? Oinarrian, borroka politiko-militarrak lortzen zuenagaz. 2011n, estrategia hori gobernuaren kontzesio barik itxi zenean, jende batek porrot lez ulertu zuen. Garaipena estatua mugiarazteagaz lortzen zen; ez, ostera, gizartean zure proiektu politikoak lortu duen zilegitasun mailagaz. Gizartea atzean ez badago, hortik urte batzuetara atzerapauso bi eman ahal dituzu. Independentismoak eta ezkerak orain 30 urte zeukaten zilegitasuna eta gaur daukatena alderatuta, hor ikusiko dugu zer garaipen eman diren.

“**Proposatzen duguna da independentzia prozesu bat dela**”

Zelan ikusten duzu gaur egungo egoera politikoa? Ez al dago blokeatuta?

Euskal Herriko independentzia prozesua beti egongo da *stand-by* batean, prozesuaren motorra den hori *stand-by* batean badago. Independentismoa 4-5 urtean krisian egon da eta, nire ustez, orain dabil altxatzen. Garrantzitsua da jakitea zergatik egon garen krisian. Ideiak argitzerakoan, nire ustez, abiadura bizian egingo du aurrera prozesu independentistak. Egokitu beharra dago.

Katalunian, ostera, pauso sendoak eman dituzte independentziarantz. Zure ustez, zertan asmatu dute?

Euskal Herrian agian ez genuen ulertuko marxismotik datorren ideia bat: gizarteak ez direla mobilizatuta egoten etengabe. Euskal Herrian askotan gertatu da mobilizazioak gora eta behera egitea; olatuan zaudenean, hori egonkortzen jakin behar da, ze gero erresaka etorriko da. Katalunian, alderdien gehiengoak onartutako Estatut-a atzera botatzeak independentista ez ziren sektore batzuk independentista bihurtzea ekarri zuen. Hemen ere ondorio horretara heldu beharko genuke, eta, agian, berriro Madrilera joan beharko dugu. 2009ko Diadan 20.000 lagun egon ziren, hurrengoan 80.000, gero 200.000, milioi bat, eta bi milioiko punta batera heldu zen. Mobilizazio ziklo bat da hori, guk bilatu behar duguna, nire iritziak. Hori dago ikasteko Kataluniatik, eta uste dut ezker abertzaleak ondo ikusi duela.

katerin ardoak
iñaki uribe
Eguneko menuak - Asteburuetak menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria
ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK
Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



JATETXE GIDA

ÑAM!**KOBICA JATETXEA**San Ignazio, 8 DURANGO
Tel.: 946 810 003Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.**ÑAM!****PLATERUENA Kafe Antzokia**Landako etorbidea, 4 DURANGO
Tel.: 946 030 300Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak,
taldeentzakoak eta ospakizunak.
www.plateruena.eus**ÑAM!**


MENU BEREZIA

Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria

60€
bikoteko
(BEZa barne)

**JULIANTXU**Iturriza, 2 BERRIZ
Tel.: 946 824 077Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.**ÑAM!****OLAJAUREGI JATETXEA**Kuruziaga Kalea, 52 DURANGO
Tel.: 946 200 864Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak
eta ospakizunak. Egunero zabalik.
www.olajauregi-jatetxea.com**ÑAM!****KANBIO JATETXEA**San Migel Dueda auzoa
AMOREBIETA-ETXANO
Tel.: 946 730 033Aste bitarteko menua, asteburuko menua,
menu berezia eta karta.

Profesional onenak zure zerbitzura!



Kabia itxurako domo geodesikoan egongo da kokatuta kultura digitalaren plaza.

Komunitate autonomoek presentzia berezia izango dute, aurten, Kabi@n

Areto Nagusiaren ondoan kokatuta egongo den guneak bost urte beteko ditu Durangoko Azokan, aurten

> KABI@ Maialen Zuazubiskar Bosgarren urteurrena beteko duen kultura digitalaren plaza komunitate autonomoek presentzia emango die aurtengo Durangoko Azokan. Kabi@k, kultura eta eduki librearen guneak, kultura digitalaren eremuko sortzaile, gazte, enpresa, web garatzaile eta eskaintzaileen topaleku izan gura du beste urte batez.

Gorka Julio antolatzaileak jakitera eman duenez, komunitate autonomoek egiten dutena

jendeari erakustea izango dute helburu aurtengoan Kabi@n.

Bost egunean, bost goiburuen (gazte/helduak, bideo-jokoak, sortzaileak/komunikazioa, garapena/euskara eta komunitate eguna) bueltan egituratu dituzten aurkezpen, solasaldi eta mahai-inguruek herritarrak kultura digitalean murgiltzeko asmoa izango dute.

Julioaren hitzetan, "Gune honen jendea erakartzea du helburu. Aurten, gainera, jendeari, interesa duten horiei gauzak

5
egunean 5 gai nagusi eta ezberdin jorratuko dituzte Kabi@n

nola egiten diren erakutsi gura diegu Kabi@n".

Egitarau zabala egunero
Azokak ateak zabaltzen dituen egunean, esaterako, gazteekin

robotikaren mundua landuko dutela, eta wikipedian editatzeko jarraibideak ere eskainiko dituztela jakinarazi dute.

Zapatuan, Game Erauntsia komunitatearen eskutik bideo-jokoak izango dira protagonista. Azokako bigarren egunean euskarazko bideo-jokoak ikusteko aukera egongo da Kabi@n.

Domekan, sortzaile egunean, dokumentazio atariak izango dira nagusi, eta Tirabirak webdok komunitatea ezagutzeko aukera egongo da. Arratsaldean, berriz,

'Marrazkeraz' ekimenaren bitartez, Kabi@ euskal marrazkilarien topagune bihurtuko da. Eurek emango diote amaiera eguneko egitarauari.

Astelehenean Kabi@k garapena eta euskara izango ditu goiburua, eta bertan, besteak beste, hizkuntz eskubideen plataforma eta Ondarroako herri hizkeraren gaineko aplikazioa aurkeztuko dituzte.

Azokako azken egunean, berriz, Areto Nagusiaren ondoan kokatuta egongo den kabia itxurako domo geodesikoan komunitatearen eguna ospatuko dute. Bertan, Librezaile taldeak, Libreoffice ofimatika paketearen laguntzagaz, webgunea euskaratzen ibiliko dira, maratoni baten bitartez.

Egunari eta aurtengo 51. Durangoko Azokari bukaera, aldiz, gaur egun modan dagoen sare sozialen munduak emango dio. Bertan, zuzenbidearen ikuspuntutik, ondorengo galdera hauei erantzun bat bilatuko diete: Zeintzuk dira sare sozialen betebeharrak? Eta zeintzuk dira arau-hauste nagusiak?

Bisitariet bertaratzeko deia
Kabi@ko antolatzaileek gonbita egin diete bisitariet, Durangoko Azokak irauten duen bitartean kultura digitalaren plaza den horretara joateko. Urtez urte handitzen doan gune horretako antolatzaile Julio aurtengoan bisitariet gauza ezberdinetan aritzeko aukera izango dutela adierazi du. "Azokak ikusteko eta erosteko aukera asko eskaintzen ditu. Aurten, berriz, jendeak gauza horiet praktikan jartzea da gure asmoa", bukatu du Julio.

KABI@KO EGITARAUA

ABENDUAK 2, BARIKUA

GAZTE / HELDU HEZKUNTZA EGUNA

- 11:00 IKASLE EGUNA.** Robotikaren mundura sarrera. Bi saio, mBot eta Scratch-en eskutik.
- 16:00 Wikipedia edizio maratonia.** Tailerra helduentzat.
- 18:30 Wikipediaren berrikuntza teknologikoak.** Hitzaldia.

ABENDUAK 3, ZAPATUA

BIDEO-JOKO EGUNA

- 11:00 BIDEO-JOKO GOIZA.** Game Erauntsia taldearen eskutik.
- 16:00 Bideo-joko mostra.**
- 17:00 Ipuinen ondorengo aplikazioa.** I can fly-ren eskutik.
- 18:30 Badago bideo-jokorik euskaraz?**

ABENDUAK 4, DOMEKA

SORTZAILE / KOMUNIKAZIO EGUNA

- 11:00 Bilketa: euskal funtsen Atari numerikoa.** Marie Andrée Oureten eskutik, hitzaldia (Baionako mediateka).
- 11:20 Mintzoak.** Iparraldeko ahozko memoriaren ataria. Hitzaldia, Terexa Lekunberriren eskutik (EKE).
- 11:40 Gaindegia: Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia.** Imanol Esnaolaren eskutik, hitzaldia.

- 12:00 Armiarma: literaturaren sarean.** Mikel Elorzaren eskutik, hitzaldia.

- 12:20 Eitb Nahieran.** Iñako Gurrutxagaren eskutik, hitzaldia

- 12:40 Euskara eta Zinemaren topagunea.** Webgune proiektuaren aurkezpena, Lander Arteagaren eskutik.

- 13:00 Ubik, sorkuntza liburutegia,** Tabakalerako sorkuntza liburutegia.

- 13:20 Dokumentazio atariak.** (Mahai-ingurua) Marie-Andrée Ouret, Terexa Lekunberri, Imanol Esnaola, Mikel Elorza, Iñako Gurrutxaga eta Lander Arteagaren eskutik.

- 16:00 SOKA app.** Joko bat IOS eta Androidentzat. Soka, euskal dantzaren urratsetan" erakusketaren inguruan. Azkue fundazioaren eta Jakes Larreren (EKE) eskutik.

- 16:25 Umap, Twitterreko euskarazko jardunaren datuak.** Codesyntaxen eskutik, hitzaldia.

- 16:50 "Lehen urratsa" webdok-a** Euskal dantzaren transmisioa Iparraldeko 5 dantza eskoletan. Mikel Etxebarria (Radiokultura) -Jakes Larre (EKE).

- 17:15 Tirabirak.** Transmedia proiektua, Eman ikerketa taldearen eskutik.

- 17:40 Talaia.** Ekimen kulturalen zaintza digitala. Elhuyar taldearen eskutik, teknologia irakaspenak.

- 18:05 Marrazkeraz Euskal Marrazkilarion Topagunea.** Marrazki Maratoiaren amaiera ekitaldia, Euskalherria's SketchCrawl-eko Gorka Belaskok gidatua.

ABENDUAK 5, ASTELEHENA

GARAPENA / EUSKARA EGUNA

- 11:00 Python programazio lengoaiarekin jolasten.** Kepa Sarasolaren eskutik (EHU/UPV), tailerra.

- 16:00 Heziraul.** Kepa Sarasolaren eskutik.

- 16:20 Mintzatu aplikazioa.** App aurkezpena, Azkue Fundazioaren eskutik.

- 16:40 Klika plataforma.** Azkue Fundazioa.

- 17:00 Ahuakemonala, Ondarroako herri hizkera sustatzeko egitasmoa.** Iamezaren eskutik, proiektu aurkezpena.

- 17:30 Baduzu euskal kontsumitzaileen komunitatea.** Ekimen aurkezpena, Kontseilua, Euskal Kontsumitzaileen Taldeak eta Kontsumitzaile elkartearen eskutik.

- 18:00 Interprest: interpretazio-zerbitzuak eskaintzeko plataforma teknologiko irekiak.** Hitzaldia. Unai Gorrotxategi.

- 18:30 WIMy gadget-a.** Aurkezpena Skura Mobile kooperatibaren eskutik.

ABENDUAK 6, MARTITZENA

KOMUNITATE EGUNA

- 11:00 Librezailearen aurkezpena eta ask.libreoffice.org laguntza gunea euskaratzeko maratonia.** Librezailearen eskutik.

- 13:00 Interneten gertatutakoa ez da zelaian geratzen.** Sare sozialak joko zaizkizue? Jon Turrillasen eskutik, hitzaldia.



RENAULT
Passion for life

Bigarren eskuko ibilgailuek espazio zabala behar zuten, eta eman egin diegu.

GAURSA OCASIÓN

ESPAZIO ZABALA

BIGARREN ESKUKO IBILGAILUAK IURRETAN

Kalitate handia eskaintzen dugulako (ehun puntutan baino gehiagotan errebisatutako autoak); 24 hilabeterainoko bermea ematen dugulako; stock handia eta marka guztietako ibilgailu-aukera zabala dugulako; gure prezioak azken prezioak direlako; finantziazio-baldintza ezin hobekak eskaintzen ditugulako... Eta beste hainbat arrazoi tarteko, bigarren eskuko ibilgailu baten bila bazabiltza, zatoz **IURRETAKO GAURSA ZENTRO HANDIRA.**



RENAULT
OCASIÓN

ZER EZ ZENUKE EMANGO HORRELAKE AUTO BATENGATIK

GAURSA

Arriandi, 12. Tel. 94 620 33 00. IURRETA www.gaursa.com

“Maitasun handiz egindako lana da, eta altxor handi bat familiakoontzat”

Bera hil eta 9 urtera argitaratu dute Jesus Kerexetaren musikari buruzko ‘Bizitzaren abestiak’ lana



Iñaki Salvador, Itziar Barredo, Blanqui Gomez eta Roberto Pérez, joan zen zapatuan, Elorrioko kultur etxean egin zuten ekitaldiaren ostean.

> ELORRIO Itsaso Esteban Joan zen zapatuan Elorrioko Iturri kultur etxean egin zuten ekitaldian aurkeztu zuten Jesus Kerexetaren (Elorrio, 1922-2007) *Bizitzaren abestiak* disko liburua. “Oso hunkigarria izan zen”, dio Blanqui Gomez Kerexetaren iloba eta disko-liburu honen argitalpenaren bultzatzaileak. “Malkorik ere izan zen, baina poztasunak eragindakoak izan ziren”, azpimarratu du Gomezek. Osabaren pianoa eraman zuten Iturri kultur etxera, eta Kerexetak konposaturiko *Kukua Mendrakan* kantaren interpretazioaz hasi zen ekitaldia, Itziar Barredo pianistaren eskutik. Ekitaldian zehar elorriarraren beste hainbat kanta ere izan ziren entzungai, *Parisen, Mosu bat* edota *Begotxu laztana*, kasurako.

Durangoko Azokako areto nagusian aurkeztuko dute, gaur, 13:30ean, disko liburua. Kerexetaren familiartekoek, Itziar Barredo pianistak eta Andoni

Iturbe Bizkaiko Aldundiaren ordezkariak parte hartuko dute aurkezpenean. Lan kontuak direla medio, Iñaki Salvador ez da Durangoko Azokako aurkezpenean egongo, baina “modu birtualean” parte hartuko du.

Izan ere, Jesus Kerexetaren familiak proposatuta, Iñaki Salvador musikari donostiarra



“**Kultura musikal handia erakusten dute Kerexetaren konposizioek**”

izan da argitalpenaren zuzendari musikala. “Balio handiko lana da, Kerexetak egin zuen konposizio lan oso handi bat idatzirik uzten delako liburuarren bitartez”, azpimarratu du Salvadorrek.

Blanqui Gomez ilobak bultzaturiko ekimena da Jesus Kerexetaren partituren eta kanten



Kerexetaren familiakoak eta hainbat herritar batu ziren aurkezpenean.

bilduma hau. Nahiz eta modu profesionalean ez den horretan jardun, piano ikasketak egindakoa da Gomez, eta zaletasuna partekatzen zuen osabagaz. “Ni hiltzen naizen egunean zeuk zaindu hau guztia”, esaten ei zion Kerexeta osabak.

Hil zenean eskuratu zituen Gomezek osabaren piano grabazioak. Handik bi urtera, Ignacio Villota osabaren gaztetako lagunak deitu zion, haren musikagaz zer gertatu zen galdetzeko. “Pizgarria” izan zen Villotaren deia Kerexetaren ilobarentzat, eta osabaren musika berreskuratzea eta gordetzeko proiektuagaz “bulegoetako atek jotzen” ibili zen beste bi urtez Blanqui Gomez. “Oso interesgarria, baina oso zaila” zela esaten zioten guztiek, harik eta Iñaki Salvadorregaz topo egin zuen arte.

Jesus Kerexetaren haurtzaroa eta gaztaroa kontatzen ditu liburuak, zailtasun maila ertaineko pianorako partiturak dakartza, eta Iñaki Salvadorrek idatzirik izan zuten delako ordubeteko iraupeneko diskoa ere bada. “Maitasun handiz egindako lana da”, dio Gomezek, “altxor handi bat familiakoontzat”. Musikazale ororentzat ere hala izan dadin espero dute, eta liburuarren 500 ale plazaratu dituzte.

Kultura eta ausardia

Kerexeta pianista autodidakta zen, eta aparejadore egin zuen lan Elorrioko Udalean. Iñaki Salvadorrek azpimarratu duenez, “musikari oso berezia zen Kerexeta: bere konposizioek kultura musikal handia erakusten dute, eta kalitate formal oso handikoak dira”. Musika klasikoan jardun arren, Kerexetak “arriskuak hartzeko” erakusten zuen ausardia nabarmentzen du Salvadorrek. “Inprobisatzeko ausardia hori ez da batere ohikoa musikari klasikoengan”, dio pianista donostiarrak. Gomez ilobak gogora ekarri duenez, “buruz egiten zuen guztia”.

51. Durangoko Azoka honetan, Bizkaiko Aldundiaren, Elorrioko Udalaren eta Gerediaga Elkartearen erakusmahaietan topatu ahalko da *Bizitzaren abestiak* disko liburua.

ALBERDI

HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658 · SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722

Joseba Jaka gogoratuko duen herri lasterketa egingo dute martitzenean

Euskal kulturaren eragile garrantzitsuenetarikoa izan zena urtero gogoratzen dute Durangoko Azokako egunetan, herri lasterketa baten bidez



Maila ezberdinetako korrikalariak parte hartzen dute lasterketa honetan.

> DURANGO Aimar Esteban Joseba Jaka (1948-1996, Zarautz) euskaltzale eta kirolzalea omentzen duen probaren hamalagaren edizioa izango da aurten. Abenduaren 6an, martitzenean, egingo dituzte Durango Kirol Taldeak antolatutako lasterketak. Lehia guztiek Ezkurdiko plaza izango dute abiapuntu, eta parte-hartzea ahalik eta zabalena izan dadin, hainbat zirkuitu antolatu dituzte adin-tarte desberdinak kontuan hartuta.

Eskola kirol mailetakoa 10:30ean hasiko dira. Lehenik, 2007an jaiotakoak edo gazteagoak direnak 500 metroko buelta txikia egingo dute. 10:45ean, 2005-2006. urteetan jaiotakoak ere distantzia bera egingo dute. 11:00etan, 2002, 2003 eta 2004. urteetan jaiotakoak arituko dira, eta 800 metroko buelta ertaina beteko dute.

Gaztetxoaren mailetako lasterketen ostean, nagusien hasiko da, 11:45ean. Huentzat sei kilometroko ibilbide lau bat diseinatu dute. Lasterketa nagusi honetan ere adinaren arabera

Eskola kirol mailetako hainbat lasterketa egongo dira proban

Antolatzaileek ur botilak jaurtitzeko guneak jarriko dituzte ibilbidean

sailkapen ezberdinak egingo dituzte. Beraz, izen-emate orrian jaiotze data jartzea derrigorrezkoa izango da azken emaitzak finkatzeko.

Ibilbidea garbi mantendu Antolatzaileek, lasterketako ibilbidea txukun mantenduguran, espresuki gune batzuk jarriko dituzte ur botilak eta bestelako hondakinak botatzeko. Horrela, ingurumenarekiko errespetua bultzatu nahi dute antolakuntza taldeak.

Izen-ematea

Izen-ematea doakoa da eskola mailakoentzat, eta egunetan bertan, 9:30etik lasterketa hasi baino hogeita hamar minutu lehenagora arte egin daitezke Ezkurdin bertan.

Lasterketa nagusian, aldiz, aurreko egunera arte egingo da inskripzio arrunta egiteko epea zabalik, www.herrrikrosa.eus webgunean. Hamar euroko kostua izango du, eta epea kanpoko izen-ematerik balego, hamalau euro ordaindu behar izango dute parte hartu gura dutenek. Lasterketaren aurreko egunetan egin beharko da ordainketa. Zerrendan ordaindu gabe agertzen direnak ordainketaren agiria aurkeztu beharko dute lasterketaren egunean, edo, bestela, egun horretako prezioa ordaindu beharko dute.

Kirolariak Ezkurdin izango dute hornidura-puntua lasterketa amaitzerakoan. Bertan, sailkapenak ezagutzera emango dituzte eta, ondoren, korrikalari guztiak helmugara heltzerakoan, sari banaketa egingo dute.

'Txistua XXI.mendean' Silbaberriren eskutik

Silbaberri txistu taldeak kontzertua joko du bihar, Urribarriko Andra Maria basilikan

> DURANGO Aimar Esteban Silbaberri txistu taldeko kideek Durangoko Azoka eguneko loturiko 'Txistua XXI.mendean' zikloa egingo dute 2005etik. Aurten ere, Durangoko Azokara bisitan datozen lagunek urteroko kontzertura joateko aukera izango dute zapatu honetan, 20:00etan, Andra Marian. Ikuskizunerako sarrera doakoa izango da.

Kontzertua basilikaren barruan jarriko duten pantaila erraldoi baten bitartez ere jarraitu ahal izango da. Musikari guztiak elizako korura igoko direnez, publikoak hurbiletik jarraitzeko aukera izatea bilatzen dute.

Organoa protagonista

Ekitaldian basilikako organoa erabiliko dute. Ez da instrumentu hau kontzertuetan erabiltzen duten lehen aldian, baina ez dute erraz izaten berau jotzea. Kontzertua prestatu ahal izateko, organoa erabiltzeko beharra dela-eta, basilikan bertan entseatu behar izan dute. Aitor Olea musikari durangarrak joko du organoa. Bere ibilbidean zehar hainbat sari irabazi duen musikaria da.

Egitaraua doinu klasikoek osatuko dute. Silbaberri taldeko

txistularien artean, Aitor Amilibia, Jon Ansorena, Sergio Torices eta Iñaki Martin arituko dira. Maria Jose Ugarteburuk fagota joko du, eta Irati Ortuabiak txeloa. Lander Bilbao eta Nerea Quincoces perkusioan izango dira.

Kontzertuko egitarauaren barruan, Francisco Ibañezen *Anamnesis* abestia estreinatuko dute. Horrez gain, *El poema del txistulari solitario*, *Nondik no-*

Durangoko Azoka egunetan urtero eskaintzen du kontzertua

Egitarauaren barruan, Francisco Ibañezen Anamnesis abestia

ra, Cripta, Le sommeil de l'ange eta *Maddi Ama-lurra* konposizioak izango dira entzungai kontzertuan.

2000. urtean jaioa, Durangoko taldeak txistuaren erreperitorioari buelta eman ohi dio. Tradizioa eta doinu modernoak uztartzen dituzte.



Silbaberriko kideak Andra Maria basilikan entseatu dute.

hitz

#gomendioak

artekalea, 23 durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT ORDAINA Philip K. Dick (2015)	UME ETA GAZTEENTZAT EMOZIOTEGIA Askoren artean (2016)	MUSIKA YOU WANT IT DARKER Leonard Cohen (2016)
---	---	--

OLA JAUREGI

Azokako menu berezia

Kurutziaga kalea, 52
DURANGO
Tel.: 94 620 08 64
info@olajauregi.com
www.olajauregi.com

“Herria euskalduntzeko eta antzinako hizkuntza den honi eusteko tresna aproposena da azoka”

Bigarren urtez jarraian boluntario lanetan ibiliko dira Durangoko Azokan Elene Goikoetxea eta Paula Garcia durangarrak

> BOLUNTARIOAK Maialen Zuazubiskar Paula Garciak eta Elene Goikoetxeak “gogotsu” espero dituzte aurretik dituzten egunak. Bigarren urtez, gaurtik martitzenera bitartean egingo den Durangoko Azokan boluntario lanetan ariko dira durangarrak.

Nolatan hasi zineten boluntario lanetan?

Paula Garcia: Durangoko Azokak sare sozialetan daukan profilari jarraitzen diot, eta, bertan, boluntarioak behar zituztela ikusi nuen. Orduan, Eleneri esatea bururatu zitzaidan, eta bere baiezkua jaso nuen izena ematea erabaki genuen.

Elene Goikoetxea: Paulak komentatu zidanean ideia bikaina iruditu zitzaidan. Txikitatik etxe aurrean eduki dudana azoka bat da, eta bertako parte izatea eta antolatzaileei gure laguntzatxoa eman ahal izatea gauza polita da.

Aurten, bigarren urtez, azokan lanean ikusiko zaituztegu. Dirudienez, iazko esperientzia ona izan zen.

P. G.: Bai, esperientzia oso ona eta oso polita izan zen. Azken batean, euskal kultura eta euskal mundua bultzatzeko aukera paregabea eskaintzen du Durangoko Azokak.

E. G.: Esperientzia oso aberasgarria izan zen iaz bizitakoa. Gainera, guk umetatik ezagutzen dugun azoka honetan bisitariei lagundu ahal izatea oso polita da.

Iaz bisitariei laguntzen ikusi zintuztegun, informazioa ematen. Nola gogoratzten dituzue azokako egun haiek?

E. G.: Une aberasgarriak izan ziren. Hasierako ekitaldian ateak zabaldu ondoren, informazio emaile gisa aritu ginen, eta gauza dibertigarria izan zen.

P. G.: Azokak ateak zabaldu zituen egunean bisitariei laguntzen ibili ginen, standak zein tokitan zeuden azaltzen eta ekitaldiak zein gunetan ematen ziren esanez. Lan polita izan zen.

Aurten berriro lan berdina egiten ikusiko zaituztegu? Ala beste lanen bat jarri dizuete antolatzaileek?

E. G.: Iaz ez bezala, aurten ez gara elkarregaz egongo, eta bakoitzak egiteko bat izango dugu. Niri esaterako, 51. Durangoko Azoka honetan, domekan areto nagusian zaintzaile egotea egokitu zait.

P. G.: Nik berriz, iazko lan antzerakoa izango dut. Astelehenean, hilaren 5ean, ateen irekieran egongo naiz, eta ondoren, informatzaile lez arituko naiz zenbait gunetan, bisitariei laguntzen.

Nola bizi dituzue azokako egunak?

P. G.: Intentsitate handiz bizitzen diren egunak dira. Alde batetik, gure boluntario lana egiten ibiltzen gara, baina, beste alde batetik, bisitari moduan ere bizi gura izaten dugu azoka.

Egia da gauza biak uztartzeko aukera egoten dela, eta bata egiten zabiltzanean bestea horrela egin dezakezula pentsatzen aritzen zarela.

E. G.: Egia da denerako denbora edukitzen dugula. Boluntarioen lana oso ongi banatuta dago, lan egiteko eta azoka bisitatzeko nahikoa denbora edukitzen dugu.

Zuek azokan egiten dituzuen lan horiek aurretiazko prestaketarik eskatzen dute?

P. G.: Ez, guk egiten dugun lanak ez. Uste dut, lan konkretu batzuk egiteko, teknikari moduan aritzeko... ikastaro txiki batzuk egiten dituztela, baina lan



gehienek ez dute prestaketa lan berezirik eskatzen.

E. G.: Gure lana nahiko erraza da. Beraz, jendeari, durangarrei zein Durangaldek kanpokoei dei egiten diegu, aurtengo azokan ez bada, hurrengo urtekoan parte hartu dezaten.

Zer espero duzue 51. Azoka honetatik?

P. G.: Jende asko etortzea eta jendeak ahalik eta ongien pasatzea espero dugu.

E. G.: Eta, nola ez, jendeak, batez ere bertakoek, Durangoko Azokari daukan balioa ematea.

Jendeak ez al du, ba, baloratzen Durangoko Azoka?

P. G.: Nire ustez, bertako jende askok ez du azoka baloratzen baloratu beharko lukeen bezala. Hau da, Euskal Herrian Durangoko Azokak garrantzi handia du, eta kanpotik jende asko etortzen da egun hauetan azokara. Eskualdean, berriz, nire iritziz, ez da hori gertatzen. Jende askok dugun altxor honi ez diola garrantzi askorik ematen iruditzen zait.

E. G.: Horrela da, bai. Gainera, uste dut Durangaldeen jende asko ez dela konturatzen egun hauetan herriak, hizkuntzak, kulturak... hartzen duen garrantziaz.

Kulturaz gain, hizkuntza, hau da euskara, protagonista bihurtzen da Durangon egun hauetan.

E. G.: Horrela da, bai. Esatea gogorra den arren, urtean zehar lau katuk hitz egiten dugu euskaraz. Egund hauetan, berriz, azokak irauten duen bitartean, euskalki ezberdinak dira nagusi herriko kaleetan.

P. G.: Azoka egunetan Durangotik ibiltzea gustagarria da, euskara izaten baita nagusi herriko txoko guztietan. Nire ustez, herria euskalduntzeko eta antzinako hizkuntza den honi eusteko tresna aproposena da Durangoko Azoka.

Lekuan lekuko egutegia

Durangoko Azokan Durangaldeko argitalpenak stand-ean (Artekale 21-22) eskuragarri!

